

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**EUROPAKO FUTBOL LIGA NAGUSIETAKO  
TALDEEN JABEGO EGITURAREN AZTERKETA:  
ESPAINIA, INGALATERRA ETA ALEMANIAKO  
KASUAK**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA: IBON IBARMIA UNANUE**

**GRADUA: ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA**

**TUTOREA: EDUARDO MALAGON ZALDUA**

**DEIALDIA-URTEA: 2018/2019**

# AURKIBIDEA

## Orokorra

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>4</b>
<b>2. METODOLOGIA.....</b>	<b>5</b>
<b>3. LALIGA.....</b>	<b>6</b>
3.1 HISTORIA.....	6
3.2 ARAUTEGIA.....	7
3.3 TALDEAK .....	9
3.4 AKZIODUN NAGUSIAK.....	11
3.5 TALDEEN MERKATU BALIOA .....	12
3.6 AZPIMULTZOAK .....	13
<b>4. PREMIER LEAGUE .....</b>	<b>22</b>
4.1 HISTORIA.....	22
4.2 ARAUTEGIA.....	23
4.3 TALDEAK .....	24
4.4 AKZIODUN NAGUSIAK.....	25
4.5 TALDEEN MERKATU BALIOA .....	26
4.6 AZPIMULTZOAK .....	27
<b>5. BUNDESLIGA.....</b>	<b>34</b>
5.1 HISTORIA.....	34
5.2 ARAUTEGIA.....	35
5.3 TALDEAK .....	36
5.4 AKZIODUN NAGUSIAK.....	36
5.5 TALDEEN MERKATU BALIOA .....	37
5.6 AZPIMULTZOAK .....	38
<b>6. KONPARAKETA .....</b>	<b>43</b>
6.1 ARAUTEGIA.....	43
6.2 ATZERRITARRAK.....	44
6.3 AKZIO BANAKETA .....	45
6.4 MERKATU BALIOA .....	46
6.5 SEKTOREA.....	47
<b>7. KONKLUSIOAK .....</b>	<b>48</b>
<b>8. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>50</b>

## Taulak eta grafikoak

TAULA 1. AKZIODUN NAGUSIAK - LALIGA .....	11
TAULA 2. AKZIODUN NAGUSIAK - PREMIER LEAGUE .....	25
GRAFIKOA 1. TALDEEN MERKATU BALIOA MILIOI EUROTAN - LALIGA.....	12
GRAFIKOA 2. JABEGO MOTEN BEREIZKETA EHUNEKOTAN - LALIGA.....	15
GRAFIKOA 3. TAMAINA EZBERDINEKO AKZIODUNEN BANAKETA EHUNEKOTAN - LALIGA.....	15
GRAFIKOA 4. AKZIODUN NAGUSIEN JATORRIA EHUNEKOTAN - LALIGA.....	16
GRAFIKOA 5. SEKTORE EZBERDINETAKO AKZIODUNEN BANAKETA EHUNEKOTAN - LALIGA.....	22
GRAFIKOA 6. MERKATU BALIO TOTALA MILIOI EUROTAN - PREMIER LEAGUE .....	26
GRAFIKOA 7. TAMAINA EZBERDINEKO AKZIODUNEN BANAKETA EHUNEKOTAN - PREMIER LEAGUE .....	27
GRAFIKOA 8. AKZIODUN NAGUSIEN JATORRIA EHUNEKOTAN - PREMIER LEAGUE .....	28
GRAFIKOA 9. SEKTORE EZBERDINETAKO AKZIODUNEN BANAKETA EHUNEKOTAN - PREMIER LEAGUE .....	33
GRAFIKOA 10. MERKATU BALIO TOTALA MILIOI EUROTAN - BUNDESLIGA.....	37
GRAFIKOA 11. AKZIODUN NAGUSIEN JATORRIA EHUNEKOTAN - BUNDESLIGA .....	39
GRAFIKOA 12. SEKTORE EZBERDINETAKO KLUBEN BANAKETA EHUNEKOTAN - BUNDESLIGA .....	40
GRAFIKOA 13. 50+1 ARAUA BETETZEN DUTEN KLUBEN EHUNEKOA - BUNDESLIGA .....	42
GRAFIKOA 14. HIRU LIGETAKO AKZIODUN NAGUSIEN JATORRIA EHUNEKOTAN .....	44
GRAFIKOA 15. BI LIGETAKO TAMAINA EZBERDINEKO AKZIODUNEN BANAKETA EHUNEKOTAN.....	45
GRAFIKOA 16. LIGA BAKOITZEKO TALDE GUZTIEN MERKATU BALIOAREN BATURA MILA MILIOI EUROTAN.....	46
GRAFIKOA 17. HIRU LIGETAKO SEKTORE EZBERDINETAKO AKZIODUNEN EHUNEKOA.....	47

# 1. SARRERA

Garai batetik Europako futbol ligen garrantzia eta konplexutasuna asko hazi da eta hauekin batera liga bakoitzean jarduten duten futbol taldeena. Gaur egun kirol erakunde hauen presentzia gure artean guztiz normala bada ere, bakoitzak dituen ezaugarri asko ezezagunak dira gure artean, jende askok gai honi buruzko ezagutza oso mugatua duelarik.

Hasiera batean hauen egituraketak sinplea badirudi ere, liga ezberdinek euren artean dituzten desberdintasunak oso handiak dira, bakoitzak bere ezaugarri eta lege propioak izanik. Lan honen bidez, Europako hiru liga garrantzitsuren eta bakoitzeko klubuen artean dauden desberdintasunak argitu nahi dira horretarako aspektu ezberdinez baliatuz.

Lan honetan aztergai izango diren hiru Europako ligak honakoak dira: Espainiako “Laliga”, Ingalaterrako “Premier League” eta Alemaniako “Bundesliga. Hiru liga hauek hautatzeko arrazoiak lehena bertako liga izatea, bigarrena liga ospetsuena izatea eta hirugarrena liga bereziena izatea dira, aurrerago ikusiko den bezala.

Azterketa konparatibo honen bidez hainbat galderei erantzuna eman nahi zaie, liga hauen osaera eta arautegiari buruzko ezaugarri eta berezitasunak ezagutu eta elkarren arteko antzekotasun eta desberdintasunak ikusi ahal izateko. Ligez gain, bakoitzean jarduten duten klubuen jabego egitura ere aztertuko da, hauetan boterea duten akziodun nagusien jatorria, talde bakoitzaren merkatu balioa, akziodunek eskuetan dituzten negozioak eta negozio hauen sektoreak zein diren ikusiz.

Hau guztia eginez, gaur egun gure gizartean horrenbesteko garrantzia hartu duen kirol honetan parte hartzen duten erakunde eta futbol taldeei buruz dugun ezagutza handitu nahi da, herrialde batetik bestera aldatzen diren faktoreak erakutsiz hauei buruz ondorio pertsonal batzuk atera ahal izateko.

## 2. METODOLOGIA

Ikerketa eta konparazio lan hau aurrera eraman ahal izateko erabilitako prozedura batez ere hiru ligen eta bakoitzeko klubaren Internet bidezko datu bilketan eta hauen egituraketa egokian laburtzen da.

Hau horrela, lehenik eta behin Europako lehen mailako 3 futbol liga garrantzitsu hautatuko dira: Espainiako "La Liga", Ingalaterrako "Premier League", eta Alemaniako "Bundesliga". Liga hauek aurkezterako orduan lehen pausoa bakoitzaren historia laburki kontatzea izango da, liga hauen iraganean apur bat sakontzeko. Gero, bakoitzaren arautegiaren azterketari ekingo zaio, bakoitzak dituen ezaugarri eta ezberdintasunak azpimarratuz.

Ligen historia eta arautegiekin amaitu ondoren, hauetako bakoitzean parte hartzen duten klubak aurkeztuko dira. Honen ostean, taula baten bitartez ligako klubaren akzio banaketa erakutsiko da, klub bakoitzeko akziodun nagusiak eta hauen sektorea erakutsiz. Honekin batera, liga bakoitzeko taldeen merkatu balio totala islatzen duen grafiko bat aurkeztuko da, bakoitzak duen botere ekonomikoa ikusteko.

Jarraian, ligako klubaren ezaugarri ezberdinak kontuan hartuz, azpimultzo batzuk ezarrita azterketa sakonago bati ekingo zaio, kasu batzuetan klub ezberdinen azterketa individual labur bat beharrezkoa izanez, bakoitzeko akziodun nagusiaren negozioa azpimarratuz eta bat beste ezaugarriaren batzuk ere aipatuz. Gainontzeko ligekin antzeko azterketa bat burututa, konparaketa orokor bati ekingo zaio, aurrez aipatu bezala 3 ligen artean dauden desberdintasun nabarmenenak azaleratzeko eta honen bitartez lan honen helburua lortu ahal izateko. Lan honi bukaera emateko, konparaketaz baliatuz konklusio pertsonal batzuk emango dira lan honen emaitzari begira.

Konparaketak egiterako orduan, azpimultzo ezberdinetan grafikoak erabiliko dira datu garrantzitsuenak era garbi batean islatzeko eta liga ezberdinen arteko desberdintasun nagusienak azaleratzeko.

Lan honetan erabilitako datu kualitatibo nahiz kuantitatiboak Internet bidez lortutakoak dira guztiak, honetarako web orri ezberdinak erabiliz, hala nola futbolari buruzko web orri desberdinetako artikuluak, talde eta liga ezberdinen web orriak eta bakoitzeko dokumentuak, kirolari loturiko datu base ezberdinak etab.

## 3. LALIGA

### 3.1 Historia

LaLiga (La Liga de Fútbol Profesional) espainiar herrialdeko futbol liga profesionala da, 1984. urteko Uztailaren 26ean sortua. Nazio mailan profesionalki lehiatzen diren lehen eta bigarren mailako futbol klubez eta kirol sozietate anonimoz osaturiko kirol erakunde juridikoki pribatu bat da, lehen mailan 20 talde eta bigarreanean 22 dituelarik.

Historiari dagokionez, espainiar ligako lehen maila 1928-29 denboraldian jarri zen martxan, F.C. Barcelona izanik txapeldun atera zen taldea. Ordura arte, espainiar futbola “Espainiar Txapelketa” deiturikoaren inguruan antolatzen zen eta ligako lehen denboraldiak txapelketa honetan izaniko txapeldun eta txapeldunordeen artean jokatu ziren. 1934-35 Denboraldia izan zen aldaketa ekarri zuena, urte horretan talde kopurua 12 izatera pasa baitzen.

1984. Urtera arte, espainiar ligaren kudeaketa eta antolaketa aurrerago aipatuko dugun “Real Federación Española de Fútbol” izeneko elkartearen menpe zegoen, azkenik urte horretan gaur egun “La Liga de Fútbol Profesional” bezala ezagutzen dugun erakundea sortu zen arte. Agintariei dagokienez, asko izan dira presidenteak, baina gaur egun kargu honetan Javier Tebas Medrano dugu. (*“LaLiga | Liga de Fútbol Profesional”, 2018*)

Espainiar futbol taldeek historian zehar eboluzio handia izan dute, urteak pasa ahala ligaren garrantzia handiagoa izan baita eta honekin interes eta helburu berriak agertu baitira. Hasiera batean futbol talde guztiek ez zuten egitura mota bakar bat, asko baizik, eta hauen artean asko desagertu ziren klubak aurrera eramateko arazoak izan zituztelako. Pixkanaka klub en arteko lehia handitzen joan zen eta hauen internazionalizazioa interes handikoa bihurtu zen, hala nola jokalaririk kanpotarrak ekartzea edota kanpoko lehiaketetan parte hartzea. Klub askorentzat hau onura bat izan bazen ere, asko bidean geratu ziren eta desagertu egin ziren diru faltagatik.

Urteak pasa ahala arazo hau ohikoago egin zen eta Espainian futboleko kirol sozietateak zor maila handiena zuten erakunde bilakatu ziren. Arazo honi irtenbide bat emateko, 1989. urtean legezko proiektu bat atera zuten, bere helburua garai horretan espainiar futboleko zegoen zor nabarmena kitatzea eta ligaren garbitasuna berrezartzea izanik. Zein zen plangintza? Kirol honen elkarte erregimena aldatzea, klub en bilakaera kirol sozietate anonimo (Sociedad Anónima Deportiva) izatera guztien artean zor zituzten 172 milioi euroak saneatzeko, kirol federazio

ezberdinen aldaketa juridikoa, maila altuko kirolariei laguntza eskaintzea, dopingaren aurkako komisioren sorrera eta beste hainbat neurri.

Lege hau 1990-ean sartu zen indarrean eta hurrengo urtean hasi ziren zorretan zeuden espainiar klubak kirol sozietate anonimo bihurtzen, kondizio batzuk eta kapital sozial bat ezarriz. Lau izan ziren transformazio hau jasan behar izan ez zuten klubak Espainian, Real Madrid, F.C. Barcelona, Athletic de Bilbao eta Osasuna, azken urteetan izandako emaitza positiboengatik. Gainerako klubei kondizio batzuk ezarri zitzaizkien 1992ko ekainak 20rako derrigorrez bete zitzaten eta honen eraginez, 91/92 denboraldian klub askok arazoak izan zituzten egun horretara etxeko lanak eginda iristeko, hauetako batzuk zigortuak izan zirelarik.

Gauzak onera egingo zutela espero bazen ere, 90. hamarkadan UEFA-k antolaturiko “Champions League” izeneko txapelketaren sarrerarekin, klub gehienek euren presupuestoa handitu zuten diru sarrerak txikiak izanda ere, kanpotik jokalaria berriak ekartzeko eta honekin txapelketa honetan postu bat lortzeko esperantzarekin. Instituzio eta administrazioaren pasibitateagatik, klubuen zorra ikaragarri handitu zen, klub askoren desagerpena ekarriz eta beste askoren zorra beldurtzeko zifretara iritsiz. Denboraldiak pasa ahala, klubuen zorra geroz eta handiagoa bilakatu zen, 2010. urtean zorra guztira 4000 milioi eurokoa zela estimatu zelarik, 1991an zegoen zorra baino 40 aldiz zifra altuagoa.

Egoera zerbait hobetu bada ere, gaur egun espainiar liga zor handiena duen ligetako bat da, klubuen kirol sozietate anonimo izateko transformazioa porrot hutsa dela ondorioztatuz, ez baitu lehenagoko egoera hobetu, okerrago utzi baizik. *(Masiá, 2011)*

## 3.2 Arautegia

Klubuen jabe goaren arautegiari dagokionez, espainiar ligan ez dago akziodunentzat mugarik. Beste era batera esanda, inbertsiogile handiek atek irekita dituzte edozein kirol sozietate anonimotako akzioak erosteko nahi diren kantitateetan, klubeko jabe berri bilakaturik.

Hau horrela izatea 1990. urtean sortu eta 1992. urtean indarrean sartu zen “Ley del Deporte” izeneko legearen ondorioa da. Honen helburu nagusia klubei erantzukizun juridikoa eta ekonomikoa ematea zen, ordura arteko eredu aldaturik, garai hartan espainiar ligan zegoen egoera hobetzeko. 80ko Hamarkadan espainiar futbolak 26.000 milioi peztako zorra zuen eta lege honen sarrerarekin ia klub guztiak kirol sozietate anonimo izatera pasa ziren zor hauek

saneatzeko. Orduz geroztik klub gehienek oraindik ere kirol sozietate anonimo izaten jarraitzen dute. (Matamoros, 2018)

Liga honetan klub en erosketa ia osotasunean librea bada ere, badira bete beharrezko arau eta baldintza batzuk, akzioen eskuragarritasuna mugatzen dutenak:

### **Akzioak eskuratzeko baimena**

Kirol sozietate anonimo bateko akzioak erosi nahi dituen pertsona fisiko edo juridiko orok, erosi nahi den zatia boto eskubideen %25a baino gehiago izango balitz, derrigorrez Kirol Kontseilu Nagusiaren (Consejo Superior de Deportes) baimena lortu beharko du. Baimen hau eskuratzeko idatzizko eskaera bat egitea derrigorrezkoa da, bertan hainbat puntu aipatuz, horien artean eroslearen datuak, saltzailea egongo balitz berarenak, kirol sozietate anonimoaren datuak, erosketari buruzko informazioa etab. Eskaera egin ostean, Kirol Kontseilu Nagusiaren partetik debekurik egongo ez balitz, baimena emango zaio erosleari eskatutako partizipazioa eskuratzeko.

### **Akzioak erosteko debekuak**

Akzioen erosketa oro har librea bada ere, badira honen inguruko debeku batzuk ere:

1. Espainia mailan diharduten gainerako kirol sozietate anonimoek edo klubek ezingo dute beste kirol sozietate anonimo bateko kapitalean eraginik izan.
2. Kirol sozietate anonimo batean %5 edo gehiagoko partizipazioa duen pertsona fisiko edo juridiko orok ezingo du beste kirol sozietate anonimo bateko partizipazioaren %5 baino gehiago izan bere eskuetan.
3. Akzioen eskurapen prozesua "Ley del Deporte"-ko 23. artikuluko lehen hiru sekzioek dioten bezala burutzen ez bada, nulutzat emango da eskurapena.

### **Akziodunen osaerari buruzko informazioa**

Kirol sozietate anonimoek, bakoitzaren sorrera edonolako izanda ere, sei hilero Kirol Kontseilu Nagusira ziurtagiri bat bidali beharko dute, akzioen liburuan erregistratutako mugimenduak erakutsiz, horien artean eskuz mugitu diren akzio kopurua eta jabe berriak zein diren adieraziz.



Honez gain, akzioak informatikoki erregistratuta badaude beste erakunde baten eskutik, Kirol Kontseilu Nagusiari erregistro hauei buruzko informazioa eman behar zaio. Gardentasuna mantentzeko, kirol sozietate anonimo oro derrigortua dago akzioen erregistro liburua edozein momentutan eskuragarri izateko Kirol Kontseilu Nagusiarentzat, obligazio bera izanik akzioen erregistroa daramaten gainerako erakundeek ere.

Labur azalduta, hauek dira espainiar ligan kirol sozietate baten jabegoa mugatzen duten baldintza nagusiak. (BOE, 1999)

### 3.3 Taldeak

Lehen mailako futbol taldeak denboraldi honetan (2018/2019) honakoak dira, lan honetan aztergai izango ditugunak:

Barcelona, Sevilla, Atlético de Madrid, Alaves, RCD Espanyol, Real Madrid, Valladolid, Levante, Girona, Real Sociedad, Getafe, Betis, Eibar, Celta de Vigo, Valencia C.F., Villarreal, Ath. Bilbao, Leganés, Rayo Vallecano eta S.D. Huesca.

Klub hauen artean, bakoitzak bere jabego eta administrazio propioa du, beraien estatutu eta politikak ezarriz. Hala ere, orain ikusiko dugun bezala, klub guzti hauek ez dute jabego egitura bera eta beraz beraien barne egitura eta politika ez da berdina.

Talde guzti hauen artean bi jabego egitura desberdin nabarmentzen dira:

1. Lehenik eta behin kirol sozietate anonimo gisa erregistraturik dauden klubak daude, 20 taldetik 17k dute egitura mota hau, ohikoena izan ohi dena. Kirol sozietate anonimoak izanik, klub hauek euren estatutuetan kapital sozial bat ezarrita daukate, akzio kopuru batean banatzen dena, akzio bakoitzak balio nominal bat duelarik. Akzio hauen jabetza eta transferentzia guztiz libre da, hau da, edozeinek eros eta sal ditzake akzio hauek nahi dituen kopuruan, eta beraz, pertsona bat akziodun nagusi izan daiteke, gaur egun klub gehienetan gertatzen den bezala. Akziodun nagusi honek klubaren boterearen zati handi bat izango du, bera baita klubaren kapitalaren zati handiena duen pertsona.
2. Gainerakoengandik desberdintzen diren hiru klubak Barcelona, Real Madrid eta Athletic Club dira, beraien jabetza bazkideen eskuetan baitago, kirol sozietate anonimoetan ez bezala. Klubeko bazkide bilakatu ahal izateko kluba aurrez aldetik ohartarazi beharra dago honen onarpena lortu arte. Behin bazkide bilakatuta, urteroko kuota bat

ordaintzen dute abantaila desberdinen truke, horien artean deskontu eskusibo ezberdinak, presidentzia hautatzeko boto eskubidea, egiten den biltzar orokorrean parte hartzeko eskubidea, klubak antolaturiko ekitaldi ezberdinetara joateko aukera etab. Kirol sozietate anonimoetan klubaren jabetza osoa pertsona batek izan dezake akzioen gehiengoa izanez gero, baina bazkideetan oinarritutako egituran berriz, pertsona batek ezin du klubaren zati handiena erosi, bazkide bihurtuta gainontzeko bazkideen mailan soilik jartzen baita, ez hauen gainetik. Aipatu beharreko puntu garrantzitsu bat da abonatu izatea eta bazkide izatea ez direla gauza bera. Abonatuak klubari urteroko kuota bat ordaintzen dio futbol partidak klubaren estadioan zuzenean ikusi ahal izateko, afizionatu gisa. Bazkideak ere urteroko kuota bat ordaintzen du baina lortzen dituen abantailak guztiz desberdinak dira, klubaren administrazioari gehiago lotuta daudenak, lehen aipatu bezala.

### 3.4 Akziodun nagusiak

Ondorengo taulan lehen mailako klub hauetako gutxi gora beherako akzio banaketa erakusten da, ahalik eta informazio iturri egungoenak erabiliz, hauen jatorria eta jabetzan duten klubaren 18/19 denboraldiko aurrekontuarekin batera.

Taula 1. Akziodun nagusiak - LaLiga

KLUBA	AKZIODUN NAGUSIAK	AKZIODUN NAGUSIAREN JATORRIA	NEGOZIO NAGUSIAREN SEKTOREA
<b>F.C. Barcelona</b>	Bazkideak	-	-
<b>Sevilla</b>	%39 Akziodun txikiak, %17 Del Nido familia, %15 Carrión familia, %15 Utrerako taldea, %10 Jesús León, %4 Gómez Miñán	Espainia	Higiezinak
<b>Atlético de Madrid</b>	%50 Gil Marín, %32 Idan Ofer, %15 Enrique Cerezo, %3 beste batzuk	Espainia	Nekazaritza, abeltzaintza...
<b>Alavés</b>	%85 Josean Querejeta, %15 beste batzuk	Espainia	Kirola
<b>Espanyol</b>	%90 Chen Yansheng, %10 beste batzuk	Txina	Jostailuak
<b>Real Madrid</b>	Bazkideak	-	-
<b>Valladolid</b>	%51 Ronaldo Nazario da Lima, %49 beste batzuk	Brasil	Kirola?
<b>Levante</b>	%70 Fundación Levante Cent Anys, %30 beste batzuk	Espainia	Kirola
<b>Girona</b>	%44,3 City Football Group, %44,3 Girona Football Group, %11,4 beste batzuk	Espainia/Arabiar Emiratoak	Kirola
<b>Real Sociedad</b>	Akziodun asko oso banatuta	-	-
<b>Getafe</b>	%99,3 Royal Emirates, %0,7 beste batzuk	Arabiar Emiratoak	Konglomeratua
<b>Betis</b>	%10 Ángel Haro, %10 López Catalán, %7 Manuel Castaño, %6,5 Hugo Galera, %4 Joaquín Caro Ledesma, %2 Joaquín Sánchez, %2 Rafael Salas, >%55 beste batzuk	Espainia	Teknologia
<b>Eibar</b>	Akziodun asko oso banatuta	-	-
<b>Celta de Vigo</b>	%58 Carlos Mouriño, %42 beste batzuk	Espainia	Mahastizaintza, eraikuntza...
<b>Valencia</b>	%82 Peter Lim, %18 beste batzuk	Singapur	Kirola, hotelak...
<b>Villarreal</b>	%99 Roig familia, %1 beste batzuk	Espainia	Industria, supermerkatuak
<b>Athletic de Bilbao</b>	Bazkideak	-	-
<b>Leganés</b>	%73,24 Hause La Fuente, %23,59 Invermercados de Valores, <%4 beste batzuk	Espainia	Higiezinak
<b>Rayo Vallecano</b>	%98 Raúl Martín Presa, %2 beste batzuk	Espainia	Arte grafikoak
<b>Huesca</b>	%66,24 Fundación Alcoraz, %15,24 Bahia TyC, %18,52 beste batzuk	Espainia	Kirola


(Norberak egina iturri ezberdinetatik)

### 3.5 Taldeen merkatu balioa

Akziodun nagusiak eta hauek duten kapital sozialaren zatia ezagutu ondoren, futbol talde bakoitzaren merkatu balio totalari erreparatuko zaio bakoitzak duen botere ekonomikoa aztertzeko. Talde baten merkatu balio totala taldeak bere eskuetan dituen jokalarien merkatu balioen batura da, ikusiko dugun bezala talde batetik bestera alde handiak aurki daitezkeelarik.

Grafiko honek erakusten du 2018/2019 denboraldian zehar LaLiga espainiar ligako talde guztiek duten merkatu balio totala milioi eurotan.

*Grafikoa 1. Taldeen merkatu balioa milioi eurotan - LaLiga*



*(Norberak egina iturri ezberdinetatik)*

Grafikoak argi erakusten duenez, hiru talde nabarmentzen dira gainerakoengandik: Bartzelona, Atletico de Madrid eta Real Madrid. Talde hauen merkatu balioa oso altua da, bertan jokatzeko duten jokalariek gaur egun merkatu balio oso altua dutelako. Ligako talde guztien merkatu balio totalaren batura **5,69 mila milioi** eurokoa da.

## 3.6 Azpimultzoak

Akziodun nagusiak ezagutu eta gero, hauen ezaugarriak aztertuko ditugu, asko nabarmentzen ez diren akziodun minoritarioak alde batera utziz, espainiar ligako talde hauen jabe nagusiek dituzten negozio ezberdinei buruz ikuspegi orokor bat izateko. Honetarako, antzeko ezaugarriak biltzen dituzten taldeak bilduko ditugu hainbat azpimultzotan.

### 3.6.1 Kirol klubak

Dakigunez, espainiar ligako lehen mailan hiru klub aurki daitezke kirol sozietate anonimo bezala jarduten ez dutenak: Bartzelona, Athletic eta Real Madrid. Zertan desberdintzen da klub hauen jabego egitura beste taldeen jabego egiturarekiko?

#### **Osaera**

Atzerago esan bezala, bi jabego egitura hauen desberdintasun nagusia bazkide eta akziodunen artekoa da. Kirol sozietate anonimoen estatutuetan kapital sozial bat ezarrita dago, akzioetan banatzen dena, akzio bakoitzak balio nominal bat duelarik. Pertsona batek bere eskuetan akzio asko baditu, botere handiagoa izango du, hau da, beste akziodunen gaineratik egongo da. Erabakitze eskubide gehiago izateaz gain, dibidendu banaketetan zati handiagoa dagokio akziodun handiari, bere garaian akzio gehiago erosi baitzituen arrisku maila handiagoa hartuz. Klubetan, aldiz, bazkide izateko kuota bat ordaintzen da urtero eta ez dago botere handiagoa duen bazkiderik, guztiek botere maila bera dute. Diru asko duen gizabanako batek ezin du jabego osoa erosi kirol sozietate anonimo askotan gertatzen den bezala eta beraz jabego mota justuagoa da alde horretatik.

#### **Irabazi asmoa**

Garbi dago kirol sozietate anonimoak bultzatzen dituen faktore nagusia irabazi asmoa dela, hau da, klub jabeek dirua irabaztea, etekina ateratzea. Aurrez aipatutako hiru klub hauek duten jabego motan, berriz, hau ez da klubaren izatearen arrazoia. Klub hauen helburu nagusiak titulu ezberdinak irabaztea, kirol jardueretan jendearen partaidetza sustatzea, talde bezala funtzionatzea eta beste hainbat dira, irabaziekin horren lotuta ez daudenak. Kirol sozietate anonimo batek ere eduki ditzake helburu hauek baina dirua irabaztea beti egongo da beste motibazio guztien gaineratik. Era berean, klub batek ere helburutzat eduki dezake dirua irabaztea, baina ez da inoiz gauza garrantzitsuena izango.

## **Agintariak**

Klub egitura duten taldeetan agintariak bazkideak dira. Urtean behin gutxienez batzar batean biltzen dira eta aurrekontuak gainditu, erabaki garrantzitsuak hartu eta klubari lotutako beste hainbat gauza egiten dituzte. Kirol klub bateko presidentea izateko, baldintza jakin batzuk bete behar dira, garrantzitsuena urteko gastuen aurrekontuaren %15a inguru norberaren diruarekin abalatzeta izanik. Badira beste baldintza batzuk ere, hala nola bazkideen antzintasuna, Real Madrid klubean ematen den bezala, presidente izateko bazkideetan 20 urteko antzintasuna izatea eskatzen delarik.

Kirol sozietate anonimoetan aldiz, hauen jabeen aginduak jarraitzen dituzte, hau da, garai batean enpresa horretan inbertitu zuten akziodunenak. Akziodun hauen inbertsioaren arrazoia etorkizunean onura bat lortzea izan ohi da eta beraz erabakiak normalean hauen intereserako izan ohi dira. Kirol sozietate anonimoetan lehenago aipatu bezala abonatuak egon daitezke, taldea animatzera joaten diren bazkideak alegia, baina ez dute ezer erabakitzeko boterarik. Laburbilduz, kirol sozietate anonimoetan batzar orokorretan parte hartzen duten bakarrak akziodunak dira eta presidentea akziodun nagusia bera izan ohi da.


## **Zuzendaritzaren hautaketa**

Klub batean erabakiak hartzen dituztenak bazkideak dira eta baita zuzendaritzako kideak aukeratzen dituztenak ere. Normalean, hauteskunde deialdi bat egiten da eta zuzendaritza aukeratzen da, ordaindu gabeko karguak direlarik, baita presidenterena ere. Aipatu beharrekoa da klubeko bazkide bakoitzak boto bat duela eta boto guztiek berdin balio dutela. Kirol sozietate anonimo batean berriz, akziodunen batzarrean erabakitzen da zuzendaritza batzordea. Erabaki honetan pertsona guztiek ez dute ahalmen berdina, akziodun guztiek ez baitute akzio kopuru bera. Geroz eta akzio gehiago eduki, geroz eta erabakitzeko botere handiagoa du akziodunak. Azpimarragarria da zuzendaritzako kargua hauek kirol sozietate anonimoetan ordainduak izan ohi direla. *(Guillén, 2017)*

Orokorrean hauek dira bi egitura mota hauek desberdintzen dituzten faktore nagusiak, beste batzuen artean.

Ondorengo grafiko honen bidez ikus daiteke espainiar ligako lehen mailan aurkitzen diren 20 klubuen eta kirol sozietate anonimoen ehunekoa.

Grafikoa 2. Jabego moten bereizketa ehunekotan - LaLiga




(Norberak egina)

### 3.6.2 Akziodun handiak / txikiak

Akzioen banaketari dagokionez, denetik ikus daiteke, akziodun handi bat duten klub batzuetatik akzioen banaketa erabatekoa den beste klub batzuetara. Ondorengo grafiko honek erakusten du kirol sozietate anonimo gisa jarduten duten klubuen artean (20tik 17 klub) zein den akziodun handiak dituzten klubuen ehunekoa eta zein akziodun txikiak klubena.

Grafikoa 3. Tamaina ezberdineko akziodunen banaketa ehunekotan - LaLiga



(Norberak egina)

Garbi dago joera nagusia akziodun handiak izatea dela, gutxienez kapital sozialaren %50 dutenak, 17 klub hauetatik 11 baitira era honetakoak. Aipagarriak dira jabego ia osoa akziodun baten eskuetan duten klubak, horien artean Getafe, Valencia, Villarreal edo Rayo Vallecano. Beste 6 klubetan, nahiz eta akziodun handiak izan, jabegoa banatuago dago, hala nola Sevillaren, Atletiko Madrilen, eta batez ere Betisen kasuan, non akziodun nagusi ugari dagoen.


Hala ere, gainerako klub guztietatik gehien desberdintzen diren biak Erreala eta Eibar dira, euren akziodun nagusia ez baita kapitalaren %2-3 izatera iristen. Hau horrela arrazoa klubaren barnean hartutako erabaki bat da, akziodun nagusiak izatea debekatzen duena, kapitalaren banaketan berdintasuna ezar dadin. Politika ezberdin honekin garbi utzi nahi dena da kluba bertakoena dela eta ez dagoela klubaren jabe nagusi bat, asko baizik, jabetzaren zati txiki bat dutenak.

### 3.6.3 Atzerritarrek

Erakunde anonimo gisa diharduten 17 klub hauetan jatorri ezberdinetako akziodunak aurki daitezke. Klub askotan espainiar enpresa eta gizabanakoek dute klubaren jabetza, atzerritarren presentziarik gabe. Beste batzuetan, aldiz, kapital sozialaren gehiengoa atzerriko enpresa edo pertsona batek du, klubaren kontrola duelarik.

Honako grafiko honetan 17 klub hauen akziodunen jatorria nola banatzen den erakusten da.

*Grafikoa 4. Akziodun nagusien jatorria ehunekotan - LaLiga*



*(Norberak egina)*



Ikus daitekeen bezala, klub hauen %70etan akziodun nagusiak nazio mailako pertsonak edo erakundeak dira, atzerritarren presentziarik gabekoak. Gainerako %30a osatzen duten klubetan akziodun nagusiak atzerritarrak dira, jatorri ezberdinetakoak direlarik. Jabegoaren gehiengo atzerritarra duten klubak honakoak dira: Espanyol, Valladolid, Girona, Getafe eta Valencia.

Espanyolen kasuan, bere kapital sozialaren %90aren jabegoa Chen Yansheng izeneko enpresari txinatar batek du. Valladoliden jabegoaren erdia baino apur bat gehiago (%51 inguru) Ronaldo Nazario da Lima brasildar jokalaria ohiak du, klubeko presidente kargua izanez. Gironan %44,3a City Football Group enpresaren eskuetan dago, bertako inbertsiogile nagusiak Arabiar Emiratoetakoak izanik. Getaferen kasuan, klubaren jabegoa ia osotasunean (%99 inguru) Royal Emirates Group izeneko konglomeratu batek du, jatorria honek ere Arabiar Emiratoetan duelarik. Azkenik, Valencian Peter Lim izeneko Singapurreko enpresaria da klubaren kontrola duena, kapital sozialaren %82a bere eskuetan izanez.

Ondorio gisa atera daiteke oraindik ere klubuen gehiengoak bertako inbertsiogileen bultzada izaten segitzen duela hauen biziraupena ziurtatzeko, kanpoko inbertsiogileak oraindik ere gutxiengo bat direlarik. Hala ere, esan beharra dago kanpotarren presentzia espainiar ligako klubetan geroz eta ohikoagoa gertatzen ari dela denbora pasa ahala.

### 3.6.4 Kirolari loturiko enpresak

Espainiar ligako kirol sozietate anonimoen artean ez daude futbolarekin edo beste kirol batekin lotutako enpresak dituzten akziodun asko, gehiago dira beste sektore batzuetako enpresak dituzten akziodunak. Honakoak dira lehen mailan aurki daitezkeenak:

#### *Alaves*

Alavesen kasua berezia da, bere akziodun nagusiaren lehen negozioa ez baitago futbolari lotua, saskibaloitari baizik. Josean Kerejeta saskibaloia jokalaria ohiak du kapital sozialaren %85a bere eskuetan. Gizon hau Baskonia saskibaloia taldeko presidente izan da urte askoan zehar gaur arte, bere negozio nagusia hau izanik. 2011. Urtean Alaves erosi zuen eta orduz geroztik akziodun nagusi izan da klubean. Gaur egun saskibaloia eta futbol taldeko presidente kargua bere eskuetan dago. (*Domaica, 2018*)

### *Valladolid*

Klub honetako akziodun nagusia Ronaldo Nazario da Lima futboleko jokalaria ohia da akzioen %51ekin. 2018. Urteko Irailean 21 milioi euro ordainduta bihurtu zen akziodun nagusi, diru hori bere inbertsio eta proiektu propioetatik aterata berak esan zuenez. (*Álvarez, 2018*)

### *Girona*

Klub honek 2 akziodun nagusi ditu, bakoitza kapital sozialaren %44,3-arekin. Lehenik "City Football Group" izeneko enpresa talde bat dugu, zeinen %87aren jabegoa "Abu Dhabi United Group" izeneko beste konglomeratu batek duen. Talde hau futbolaria loturiko enpresa ezberdinez osatuta dago, futboleko klubez, akademiez eta marketineko enpresez besteak beste. Manchester City FC eta New York City FC, Premier League eta MLS ligetako taldeak direnak, hauen jabegoan daude, mundu mailako beste klub batzuek gain. (*Cityfootballgroup.com*)

Beste akziodun nagusia %44,3-arekin Josep Guardiola futbolaria ohi eta entrenatzailearen anai den Pere Guardiolen enpresa da, Girona Football Group izenekoa. (*Rosell, 2017*)

### *Valencia*

Peter Lim enpresari eta inbertsiogile singapurtarra dugu Valenciako akziodun nagusi, %82a berea duelarik. Valenciak gain, beste negozio askotan inbertitu du, batez ere kirolari lotutakoetan, baina baditu beste enpresa batzuk ere, hala nola jatetxe kate handi bat eta baita hotelak ere. Bere proiektu ezagunenetako bat "Iskandar Malaysia" izeneko hiri berri bat da, Singapurretik gertu kokatzen dena eta 1.000 milioi eurotan baloratuta dagoena. (*Taulés, 2015*)

### *Levante*

Levanteren kasuan bere kapital sozialaren %70 inguru "Fundación Levante Cent Anys" izenekoaren eskuetan dago. Fundazio honen helburu nagusia Levante Unión Deportiva elkarte anonimoaren jarraipena bermatzea eta honen sustapena dira, kirolari lotutako beste hainbat adarretan ere laguntzen duelarik, hala nola ikerketa ezberdinetan, kirolaren hezkuntzan edota ekintza kulturaletan. (*LevanteUD*)

### *Huesca*

Huesca taldearen kapital sozialaren %66 inguru "Fundación Alcoraz" deitutakoarena da. Fundazio hau 2007. urtean sortu zen Huescako hirian eta talde hau 2009an kirol sozietate anonimo bilakatu zenetik akziodun nagusia izan da. Honen helburua Aragoiko kirola, kultura eta gizartearekin konpromisu etengabea izanez hauen sustapena bultzatzea da, honen bidez hainbat gauza lortzeko, hauen artean kirol jarduerak sustatzea, hezkuntza sistema hobetzea, ekitaldi solidarioetan parte hartzea handitzea, kategoria txikietako taldeei laguntzea eta talde honen balore historikoak ezagutaraztea. (*FUNDACIÓN ALCORAZ | Web Oficial*)

### 3.6.5 Beste sektoreko enpresak / pertsonak

Ligako talde gehienetan akziodun nagusia den pertsonak edo enpresak futbolarekin zer ikusirik ez duen enpresa edo negozio bat edo gehiago du atzean, ondorengo kasuetan ikusiko dugun bezala.

#### *Sevilla*

Sevilla taldean, Del Nido familia aurkitzen dugu akziodun nagusi bezala, kapital sozialaren %17rekin, garai batean klubeko presidente izan zen Jose María Del Nido pertsona ezagunena izanik. Akziodun honek hainbat negozio ditu nazio mailan, gehienak higiezin sektorearekin zerikusia dutenak, horien artean “Cuerdel S.L.”, “Promobi S.L.”, “Rodríguez Herranz & Del Nido S.L.” eta “Criterium Lar S.L.” deituriko enpresak, non bakoitzean parte hartze desberdina duen. Higiezin sektoreko enpresa hauez gain, bere abokatuen enpresa propioa du bere semearekin batera, “Del Nido Abogados S.L. Profesional” deiturikoa. Ostalaritza sektorean ere sartua dago, “Amigos de la Pizza S.L.” izeneko enpresarekin. Hau guztiaz gain, legalki erregistratu gabeko ondasun asko izan dituela ere jakina da, “Caso Minutas” izeneko korrupzioaren aurkako ikerketarekin ikusi zen bezala. (*Galiacho, 2014*)

#### *Atletico de Madrid*

Atletico de Madrilen Miguel Ángel Gil Marín da kapital sozialaren %50 ingururen jabea duen enpresaria eta bere lankide Enrique Cerezorekin batera, zeinek kapitalaren %15aren jabea duen, klub honen boterea du. Enpresari handi honen bigarren negozio nagusia abeltzaintza eta nekazaritza sektorean kokatzen da, bi lur eremu handi dituelarik, “Valdeolivas” eta “El Arco” izenekoak. Bi eremu hauek kudeatzeko “Campos de Avila y Segovia Explotaciones Agrícolas y ganaderas” izeneko sozietatea erabiltzen du, hau izanik bere bigarren negozio nagusia, klubaren ondoren. Higiezin sektorean ere inbertitu izan du bere anai arrebeekin batera, nahiz eta sektore honetan ez duen hainbeste sakondu. (*Paniagua, 2018*)

Nahiz eta kapitalaren zati handienaren jabe ez izan, Idan Ofer izeneko israeldarrak klub honen jabetza du %32an eta bigarren postua du akziodun nagusien zerrendan. Gizabanako honen negozio nagusia “Quantum Pacific Group” izeneko enpresen konglomeratu internazional bat da, mundu mailako hainbat industriek osatzen dutena garraio, energia, baliabide natural, medikuntza teknologia eta motorraren sektoreetan. Estimatzen da munduko 630. Pertsona aberatsena dela 2.500 milioi euroko ondasunarekin, Forbesen arabera. (*Diaz, 2018*)

### *Espanyol*

Kapital sozialaren %90rekin Chen Yansheng enpresari txinatarrak du jabegoa klub honetan. Bere negozio nagusia Rastar Group izeneko enpresa multzo bat da, zeinen eginkizuna luxuzko urruneko kontroleko autoen prestaketa den, beste hainbat eginkizunen artean, adibidez eskala tamainako autoen erreplikak, bizikletak, umeen jostailuak, maletak, bideojokoak etab. Forbesen arabera 1000 milioi euroko ondasuna du, Txinako 254. pertsona aberatsenaren postua irabaziz. *(Corpas, 2016)*

### *Getafe*

Aurrez ikusi bezala Getaferen jabego osoa ia, kapital sozialaren %99 inguru, Royal Emirates izeneko enpresen konglomeratu handi batek du. Enpresa hau internazionalki oso ezaguna da eta mundu mailako sektore askotan jarduten duten enpresa eta negozio askoren jabe da, Getafe barne. Petrolio eta gas sektorean, osasun sektorean, turismo sektorean, eraikuntza sektorean eta beste sektore askotan jarduten duten enpresek osatzen dute konglomeratu erraldoi hau.

### *Betis*

Talde honetan akziodun nagusi asko dira baina bi nagusienak hartuko dira azterketa honetan.

Ángel Haro sevillarra da talde honetako presidentea eta aldi berean akziodun nagusia, kapital sozialaren %10aren jabea izanda. Enpresari honen negozio nagusia 2008an sortu zuen Wingenia izeneko enpresa da eta honen bidez beste enpresa batzuk kontrolatzen ditu, hala nola Tentusol, Prodiel, Energía Plus edo ITVP. Aipaturiko enpresa hauek energia berriztagarrien, instalazio elektrikoaren, energia komertzializazioaren eta ibilgailu eta lur eremuen azterketa sektoreetan jarduten dute. *(Palco23.com)*

Presidentearekin batera, José Miguel López Catalán dugu taldeko akziodun nagusia, kapital sozialaren zati berdinarekin. Sevillek honen negozio nagusiak Genera Interactive, Play Tales eta Bravo Studios dira, guzti hauek teknologia berrien sektorekoak. *(Realbetisbalompie.es)*

### *Celta de Vigo*

Celtako akziodun nagusia Carlos Mouriño enpresari galiziarra da, kapital sozialaren %58 ingururekin. Bere negozioak hainbat sektoretan zabaldua daude, hala nola mahastizaintza eta ardo ekoizpenean, eraikuntzan, higiezin sektorean edota ingeniarietza aeronautikoaren sektorean. Aipaturiko sektore hauetan “Grupo Corporativo Ges” izeneko erantzukizun mugatuko elkarte baten bidez inbertitzen du. *(Bravo, 2018)*

### *Villarreal*

Villarreal klubaren jabetza osoa Roig familiak du, Fernando Roig izanik klub hau aurrera atera zuena eta gaur egun bertako presidente kargua mantentzen duena. Bere anai Juan Roig

enpresari ezagunarekin batera Espainia mailan hainbat negozio dituzte, hala nola “Mercadona” supermerkatu katea, gaur egun duen arrakasta handiarekin. Hauen eskuetan dagoen beste enpresa handi bat “Pamesa Grupo Industrial” da, honek ere pisu handia duelarik. (Ribés, 2016)

### *Leganes*

Leganesen kasuan, kapital sozialaren %73 duen enpresa Hause La Fuente da, higiezinaren sektoreko enpresa madrildar bat, egoitza Leganesen bertan duelarik. Enpresa honen jarduera nagusia higiezinaren inguruko salmenta, erosketa eta alokairua da, higiezinaren agentzi gehienak bezala. (Infoempresa.com)

### *Rayo Vallecano*

Raul Martín Presa dugu 2011. urtetik Rayo Vallecano taldeko akziodun nagusi eta presidente, urte horretan Ruiz Mateos jaunari, Nueva Rumasa konglomeratuaren jabeari, kluba erosi zionetik. Enpresari honek arte grafikoen sektoreko hainbat enpresa ditu bere eskuetan, horien artean Cromosur, Serigrama, Margicart, Martiplas, Digital SM eta Adhegraf. (ExtraConfidencial, 2015)

## 3.6.6 Barne araudi bereziko taldeak


Kirol sozietate anonimo bezala diharduten talde guztien artean badira akzioen jabetzaren inguruan euren arau bereziak dituztenak, gainerakoengandik desberdinak direnak.

### *Eibar eta Real Sociedad*

Ligako talde guztien artean, badira bi kirol sozietate anonimo euren estatutuetan arau berezi bat dutenak, Erreal edo Real Sociedad eta Eibar hain zuzen ere. Bi talde hauen kasuan, akziodunen artean hartutako erabaki batek pertsona batek eros ditzakeen akzio kopurua mugatzen du. Errealaren kasuan, akziodun handienak ez du kapital sozialaren %2,5a baino gehiago bere eskuetan, horrela akzioak oso banatuak egotea eta akziodunen arteko berdintasuna bermatzea lortzen da.

Ondorengo grafiko honek erakusten du 17 kirol sozietate anonimoetatik zein den futbolari edo kirolari loturiko enpresak dituzten akziodunen ehunekoa, zein beste sektoreko enpresena eta zein araudi berezia dutenena.

Grafikoa 5. Sektore ezberdinetako akziodunen banaketa ehunekotan - LaLiga



(Norberak egina)

## 4. PREMIER LEAGUE

### 4.1 Historia

Barclays Premier League ala Premiership bezala ezagutzen duguna Ingalaterrako lehen mailako 20 taldek osatzen duten futboleko liga da, aldi berean munduko liga ikusiena eta diru gehiena mugitzen duena izanez. Honen eraginez, munduko jokalaririk onenak erakartzen ditu eta sinesteko zaila bada ere, oso liga gaztea da, 1992ko abuztuak 15ean sortu baitzen. Garai hartan Ingalaterran Football League First Division izeneko ligan jokatzen zuten talde onenek eta 92. urtean, telebistako eskubideei probetxu ekonomiko handiagoa atera ahal izateko, talde guztien erabakiz, gaur egungo Premier League sortu zuten.

80. Hamarkada futbol ingelesarentzat garai txarra izan zen, futbol zaletasuna asko jaitsi zen eta zale erradikalek biolentzia handia ekarri zuten, europar txapelketetan parte hartzeko aukerarik gabe geratu zirelarik. Biolentzia honen adibide garbia izan zen 1985. urtean gertatu zen tragedia, Liverpool eta Juventus en arteko Europako kopako finalean 39 zale hil zirenean. Football League First Division ligak ia ehun urte bete bazituen ere, ez zuen lortu garai hartan italiar edo espainiar ligak zuten arrakasta zaletasun nahiz diru aldetik.

Hala ere, beherakada honek ez zuen hainbeste iraun, 90. hamarkadan Ingalaterrako selekzioa 1990. urteko mundialeko finalera iritsi baitzen eta honi esker UEFA-k europar txapelketetan parte hartzeko eskubidea berrezarri zien talde ingelesei.

Telebistaren dirua oso faktore garrantzitsu bihurtu zen; Ingalaterrako ligak 1986. urtean bi urteko adostasun bategatik 6,3 milioi libra esterlina soilik jaso zituen eta harrigarria badirudi ere, 1988an hurrengo 4 urteetarako zifra 44 milioi libretara igo zen. Honek taldeen protestak ekarri zituen eta 10 klubek liga uzteko eta berri bat sortzeko mehatxuak bota zituzten eta hainbat eztabaida eta gero liga uztea erabaki zuten kirol honek sortzen zituen diru iturriak gehiago aprobetxatzeko.

Berregituraketa erradikal baten beharrea zeudela, 90-91 denboraldi bukaeran liga berri baten sorreraren proposamena publiko egin zen eta kideen arteko hitzarmena 1991ko uztailak 17an sinatu zuten. Hitzarmen honetan klub handienak sartzen ziren eta oinarrizko printzipioak ezarri zituzten Premier League sortzeko, futbol federazio ingelesetik eta Football League-tik independentzia komertziala ezarri askatasun osoa izan zezaten euren babeslea kudeatzeko. Aldaketa hau beharrezkoa izan zen talde ingelesak berriz maila onenean lehiatzeko eta munduko futbolari onenak erakartzeko, 1991an ezinezkoa ematen bazuen ere.

1992ko otsailak 20an, lehen mailako klubek Football League-n lehiatzeari uko egin zioten eta hiru hilabete beranduago Premier League sortu zen sozietate anonimo bezala, historiako 104 urte atzean utziz. Premier League-k soilik lehen mailako lehiaketa kudeatuko zuen, Football League utziz gainerako hiru dibisioetan.

Bestalde, liga berriak telebistako eskubideak Sky TV enpresari saldu zizkion eta honek Premier League-aren diru sarreretan igoera nabarmena ekarri zuen. Orduz geroztik, lehen mailako liga pribatu honek hazkunde oso handia izan du babeslea eta beste diru sarrera batzuei esker. Honi esker, klubak presupuesto asko handitu da, munduko jokalaririk onenak ekartzeko ahalmena dutelarik. Hasieran aipatu bezala gaur egungo futbol liga ospetsuena eta dirudunena izatea lortu du, Europako gainerako futboleko liga guztien gainetik. (*Infodeportes.com*)

## 4.2 Arautegia

Espainiar ligaren antzera, klubak jabegoa Ingalaterran ia osorik askea da, akzioen erosketak guztiz libreka baita. Honek inbertsiogile handiak eta boteretsuen atak irekitzen ditu klubetako bazkide eta zaleei erabakitzeko eskubidea kenduz.

Azken urteetan, munduko futbol liga erakargarriena izanik, atzerritar inbertsiogile handien presentzia asko handitu da liga ingelesean, klub handien jabeak nagusiki atzerritarrak bihurtuz, baina nola eskuratzen dute hauen jabetza?

Lege zehatzik ez dagoenez, klub bateko akziodun nagusi bilakatzea klubaren egituraren araberakoa izango da, bakoitzak duen politikaren araberakoa, alegia. Ingalaterrako futbol klubaren artean nagusiki bi egitura mota bereizten dira, alde batetik jabetza enpresa pribatu baten eskuetan egon daiteke, kasu honetan kluba erosteko soluzioa eskaintza bat egin eta jabeek eskaintza hau onartzea izango litzatekeelarik. Bestalde, klubaren jabetza PLC (Public Limited Company) baten eskuetan badago, badago baldintza bat klubaren jabetza eskuratu aurretik jabe berriak akzio kopuru bat izatea derrigortzen duena. Hala ere azken finean, klubaren egitura edozein izanda ere, kanpo inbertsiogileek atek oso zabalik izaten jarraitzen dute.

Askatasun honek gauza onak ekartzen baditu ere, horien artean kirol honen inguruan askoz diru gehiago mugitzea, badira desabantaila batzuk ere. Honen adibide garbia izan zen 2005. urtean estatubatuar inbertsiogile batzuek Premierreko klub baten jabetza hartu zutenean, kluba zorretan hondoratu baitzuten hau erosteko eskatu zituzten mailegu handiengatik. Horrelako arrazoiengatik Ingalaterran klub askotako zaleak jabeak izateko proposamen asko egin dira, Alemanian gertatzen den bezala. Hau gertatzeko era bakarra klubaren erosketak izango litzateke, jabeek eskaintza bat eginez edota kluba kontrolatzeko nahiko akzio erosita, honek ideia hau aurrera eramatea asko zailtzen duelarik.

Klubaren jabetza zaleen eskuetan egoteak hasiera batean ideia ona badirudi ere, oraindik ere Premier League ez dago horretarako prestatuta, gaur egun klubek darabiltzaten diru kopuruak oso handiak baitira, protagonista nagusiak inbertsiogile eta enpresa handiak izanik. (*InBrief.co.uk, 2019*)

### 4.3 Taldeak

Premier League-eko taldeak 2018/19 denboraldian, lanean aztergai izango ditugunak, honakoak dira:

Liverpool, Manchester City, Arsenal, Tottenham Hotspur, Manchester United, Chelsea, Wolverhampton Wanderers, Watford, Leicester City, Everton, West Ham United, Bournemouth, Crystal Palace, Newcastle United, Brighton and Hove Albion, Southampton, Burnley, Cardiff City, Fulham eta Huddersfield Town.



Klub hauen artean, bakoitzak bere jabego eta administrazio propioa du, beraien estatutu eta politikak ezarriz. Aipagarria da espainiar ligan ez bezala, liga honetako klub guztiek kapital sozial bat ezarrita dutela akziotan banatzen dena eta beraz klub guztietan aurkitzen da akziodun nagusi bat. Espainiako ligako lehen mailan Bartzelonak, Athletic-ek eta Real Madrideren kirol klub egitura gaur egun ez da existitzen lehen mailako futbol liga ingelesean.

#### 4.4 Akziodun nagusiak

Ondorengo taulan Premier League-eko klub hauetako gutxi gora beherako akzio banaketa erakusten da, ahalik eta informazio iturri egungoenak erabiliz.

Taula 2. Akziodun nagusiak - Premier League

KLUBA	AKZIODUN NAGUSIAK	AKZIODUN NAGUSIAREN JATORRIA	NEGOZIO NAGUSIAREN SEKTOREA
<b>Liverpool</b>	~%100 Fenway Sports Group	Estatu Batuak	Kirola
<b>Manchester City</b>	~%100 City Football Group (Mansour bin Zayed Al Nahyan)	Arabiar Emiratoak	Kirola
<b>Arsenal</b>	~%100 Stan Kroenke	Estatu batuak	Kirola
<b>Tottenham Hotspur</b>	~%85 ENIC International Ltd	Ingalaterra	Kirola, komunikazioa
<b>Manchester United</b>	~%98 Glazer familia	Estatu Batuak	Petrolio, kirola...
<b>Chelsea</b>	~%100 Roman Abramovich	Errusia/Israel	Burdingintza
<b>Wolverhampton Wanderers</b>	~%100 Fosun International	Txina	Konglomeratua
<b>Watford</b>	~%100 Gino Pozzo	Italia	Kirola
<b>Leicester City</b>	%100 Srivaddhanaprabha familia	Tailandia	Duty-free dendak
<b>Everton</b>	%68,56 Farhad Moshiri, %5 W Kenwright CBE, %26,44 beste batzuk	Iran/Ingalaterra	Higiezinak
<b>West Ham United</b>	%51,1 David Sullivan, %35,1 David Gold, %10 WHU LLC	Ingalaterra	Higiezinak
<b>Bournemouth</b>	%100 Maxim Denim	Errusia	Petrokimikoak
<b>Crystal Palace</b>	Steve Parish, David Blitzer, Joshua Harris (zati handiena)	Estatu Batuak	Kirola
<b>Newcastle United</b>	%100 Mike Ashley	Ingalaterra	Kirol arropa
<b>Brighton and Hove Albion</b>	~%75 Tony Bloom	Ingalaterra	Apustuak
<b>Southampton</b>	%80 Gao Jisheng, %20 Katharina Liebherr	Txina	Kirolak
<b>Burnley</b>	%49 Mike Garlick, %27 John Banaszkiwicz	Ingalaterra	Aholkularitza
<b>Cardiff City</b>	%51 Vincent Tan	Malasia	Konglomeratua
<b>Fulham</b>	~%100 Shahid Khan	Pakistan	Autoak
<b>Huddersfield Town</b>	~%100 Dean Hoyle	Ingalaterra	Paperezko artikuluak


(Norberak egin iturri ezberdinetatik)

## 4.5 Taldeen merkatu balioa

Akziodun nagusiak eta hauek duten kapital sozialaren zatia ezagutu ondoren, futbol talde bakoitzaren merkatu balio totalari erreparatuko zaio bakoitzak duen botere ekonomikoa aztertzeko. Talde baten merkatu balio totala taldeak bere eskuetan dituen jokalarien merkatu balioen batura da, ikusiko dugun bezala talde batetik bestera alde handiak aurki daitezkeelarik.

Grafiko honek erakusten du 2018/2019 denboraldian zehar Premier League Ingalaterrako ligako talde guztiek duten merkatu balio totala milioi eurotan.

*Grafikoa 6. Merkatu balio totala milioi eurotan - Premier League*



*(Norberak eginga iturri ezberdinetatik)*

Grafikoan ikus daitekeen bezala, bada talde kopuru bat gainerakoengandik bereizten dena. Balio handienarekin Manchester City aurkitzen dugu, gainerakoei puska nabarmen bat ateratzen diela. Hala ere, esan daiteke ondorengo bost klubek, Liverpool, Chelsea, Tottenham, Manchester United eta Arsenalak nahiko merkatu balio altua dutela falta diren taldeekiko. Aipagarria da talde guzti hauen merkatu balio totalaren batura espainiar ligarena baino nabarmenki altuagoa dela, **8,51 mila milioi** eurokoa izanik.

## 4.6 Azpimultzoak


Espainiar ligan bezala, akziodun nagusiak ezagutu eta gero, hauen ezaugarriak aztertuko ditugu, asko nabarmentzen ez diren akziodun minoritarioak alde batera utziz, Ingalaterrako ligako talde hauen jabe nagusiek dituzten negozio ezberdinei buruz ikuspegi orokor bat izateko. Honetarako, antzeko ezaugarriak biltzen dituzten taldeak bilduko ditugu hainbat azpimultzotan.

### 4.6.1 Akziodun handiak / txikiak

Akzioen banaketari dagokionez, argi ikus daiteke ia talde guztietan akziodun nagusiak kapital sozialaren zati oso handia duela, talde gutxi dira akzioak apur bat banatuagoak dituztenak.

Grafiko honek erakusten du zein den akziodun handiak dituzten klubuen ehunekoa (kapital sozialaren %50 edo gehiago) eta zein akziodun txikiagoak dituztenena.

*Grafikoa 7. Tamaina ezberdineko akziodunen banaketa ehunekotan - Premier League*



*(Norberak egina)*

Kapital sozialaren banaketa ez da oso zabala Premierrean, Burnley klubak bakarrik baitu kapital sozialaren %50 baino gutxiago duen akziodun nagusia. Hala ere, esan beharra dago klub honetan akzio banaketa ez dela oso handia, gainerakoetatik zerbait bereizten dela soilik. Beste 19 klubetan akziodun nagusiak kapital sozialaren %50 edo gehiago du bere esku, kasu gehienetan


jabego osoa edo ia osoa akziodun baten esku egonik, adibidez Liverpool, Manchester City, Arsenal eta beste klub batzuetan gertatzen den bezala.

#### 4.6.2 Atzerritarrak

Atzerritarren presentzia liga honetan oso nabarmena da, klub askoetako akziodun nagusiak beste herrialde batzuetakoak baitira. Badira akziodun nagusi ingeles batzuk ere, nahiz eta atzerritarrak gehiago izan.

Ondorengo grafiko honek erakusten du 20 klubetatik zein den atzerritar jabeak dituzten klubuen ehunekoa eta zein bertakoena.

*Grafikoa 8. Akziodun nagusien jatorria ehunekotan - Premier League*



*(Norberak egina)*

Aipagarria da liga honetako klub boteretsu eta ospetsuenetan jabeak atzerritarrak direla, enpresa handi bat edo gehiagotan kargu bat dutenak. Honen adibide dira Liverpoolleko akziodun nagusi den Fenway Sports Group estatubatuar kirol enpresa, Arsenalen Stan Kroenke enpresari estatubatuarra, Chelseako Roman Abramovich enpresari errusiarra edota Manchester City-ko City Football Group konglomeratua, beste batzuen artean.

### 4.6.3 Kirolari loturiko enpresak

Premier League-en badira klub batzuk zeinen jabetza kirolen sektoreari erlazionaturiko enpresa edo konglomeratu batena den. Hala ere, kasu batzuetan enpresa hauen atzean beste sektore bati loturiko negozio bat egon ohi da, hau finantziatzeko balio dutenak.

#### *Liverpool*

Fenway Sports Group enpresa estatubatuarra da Liverpoolen jabea, akzioen gehiengoa berea duelarik. 2001. Urtean sortutako kirolari, mediari eta entretenimenduari loturiko enpresa honek egoitza Bostonen du eta Liverpoolen jabea izateaz gain beste hainbat negozio ditu bere eskuetan. Bere enpresen karteran mundu mailako izen eta klub ospetsu batzuk aurkitzen dira, horien artean Boston Red Sox izeneko estatubatuar beisbol ligako taldea, Fenway Sports Management izeneko salmenta eta marketineko enpresa bat eta beste hainbat. Aipagarria da kirol munduko bi estadio garrantzitsu ere enpresa honenak direla, Anfield eta Fenway Park, futboleko eta beisboleko klubena.

Fenway Sports Group bere jabe John Henry eta presidente Tom Wernerek zuzentzen dute, talde profesional bat atzean dutelarik. (*Fenway Sports Group*)

#### *Manchester City*

Manchester City-ren kasuan, klubaren jabetza City Football Group izeneko holding baten esku dago. Klub honen jabetza gain, futbolari erlazionaturiko hiri askotako enpresak bereak ditu, hala nola beste futboleko klub batzuk, futbol akademiak eta baita marketineko enpresak ere. Hiru kontinenteetan ditu klub garrantzitsuak, Premierrean Manchester City FC, MLS liga estatubatuarrean New York City FC eta A-League australiarrean Melbourne City FC.

Holding honen helburua futboleko partaidetza handitzea, talentu onenak bilatu eta hobetzea eta jokoaren eboluzioa sustatzea dira.

Aipagarria da City Football Group holdingaren akziodun nagusia Abu Dhabi United Group enpresa dela, jabetzaren %87 bere duelarik. Inbertsioan eta garapenean oinarritzen den enpresa honetako jabea Sheikh Mansour bin Zayed Al Nahyan da. (*Cityfootballgroup.com*)

#### *Arsenal*

Stan Kroenke da Arsenalen jabea, bere eskuetan Kroenke Sports & Entertainment izeneko holding motako enpresa duelarik. Enpresa honek bere jabetza kirol instalazio ezberdinak ditu eta hauen kudeaketan jarduten du, Pepsi Center izanik ezagunena, non ekitaldi ezberdinak antolatzen dituen, hala nola hockey partiduak, saskibalo partiduak, ekitaldi musikalak edota baita familiarrak ere. Antzerki sala bat eta irrati bat izateaz gain, talde ezberdinetako

merchandising-a saltzeko eskubideak ere baditu, horien artean Denver Nuggets, Colorado Avalanche, Colorado Mammoth eta Colorado Rapids. (*Bloomberg.com*)

### *Tottenham Hotspur*

ENIC Group inbertsio enpresa britainiarra da klub honetako akziodun nagusia, kapital sozialaren %85ekin. Enpresa hau bi sektore nagusitara zuzentzen da, kirol sektorera eta komunikazio sektorera. Enpresa hau Joe Lewis-en eskuetan dago, aldi berean Tavistock Group izeneko beste inbertsio enpresa bat bizkarrean duelarik eta honen bidez beste hainbat sektoretan ere inbertitzen du. (*Revolvy.com*)

### *Watford*

Watford taldearen jabea Ginno Pozzo da, Gian Paolo Pozzo enpresari italiarraren semea. Pozzo familiak gaur egun bi klubak jabetzen ditu, italiar ligako Udinese, Giampaolo Pozzoren eskuetan dagoena eta Watford, semearen jabetzara dagoena. Giampaolo Pozzo enpresariak Udinese klubaren jabea izan da 1986. urtetik eta 2012. urtean Watford talde ingelesa erosteko saltoa eman zuen, bere semea beranduago klubaren kargu egingo zelarik. Granada klub espainiarrean ere akzioen zati bat eskuetan izan zuen, beranduago saldu bazuen ere. (*Fieiras, 2018*)

### *Crystal Palace*

Joshua Harris eta David Blitzer dira talde honetako akziodun nagusiak, Steve Parish-ekin batera. Harris eta Blitzer jaunak bakoitzak bere negozio propioak dituzte, alde batetik Harris Apollo Global Management, LLC izeneko enpresa baten parte da, inbertsio enpresa bat eta Blitzer jauna Blackstone's Tactical Opportunities Group izeneko beste enpresa bateko kide da, hau ere inbertsioei lotua egonik.

Bi enpresari hauek elkarren artean beste enpresa bat sortu zuten, kirolaren sektoreko negozioak aurrera eramateko, Harris Blitzer Sports & Entertainment izenekoak, zeinen bitartez kirol munduko hainbat talderen kapital sozialaren zati bat duten, horien artean Crystal Palace, Philadelphia Seventy Sixers saskibaloi taldea eta beste hainbeste. (*Harris Blitzer Sports & Entertainment*)

### *Southampton*

Gao Jinsheng enpresari txinatarrak Southampton taldearen kapital sozialaren gehiengoa du, aldi berean Lander Sports Development Company Ltd izeneko enpresa izanik. Enpresa hau urte batzuk lehenago higiezinaren sektoreari oso lotua bazegoen ere, gaur egun kirolaren sektorean baneratu da honen inguruko jarduerak aurrera eramanez, hala nola kirol ekitaldien antolaketa, honen diseinua, kirol estadioen eraikuntza, kirol artikuluen azterketa eta salmenta, agentzi ezberdinekin negozioak etab. (*Gualterio, 2016*)

#### 4.6.4 Beste sektoretako enpresak

##### *Manchester United*

Glazer familia dugu Manchester United klub ingeleseko jabegoan, kapital soziala ia osotasunena beraiena delarik. 2005. Urtean Malcolm Glazer enpresari estatubatuarrek klub hau erosi zuen, aurretik hainbat negozio garrantzitsuetan inbertitu zuelarik. Glazer jauna bere bizitza osoan zehar negozio askori lotua egon zen, 1984. urtean Conrail garraio enpresa erostetik hasita, estatu batuar gobernua zuzentzen zuena. Horrez gain, herrialdeko sukalde fabrikatzaile handiena izan zen eta baita Harley-Davidson enpresako diseinatzaile ere. Hala ere, bere mugimendu ezagunenetarikoa Zapata Corporation izeneko petroleoaren sektoreko enpresaren kontrola izan zen, George W. Bush-en jabegoan zegoena. Hau guztiaz gain, Tampa Bay Buccaneers estatubatuar futboleko jabe eta presidente ere izan zen. 2014. urtean hil egin zen eta bere negozioak familiako kideen esku utzi zituen, Manchester United kluba barne. (*Palmisciano, 2017*)

##### *Chelsea*

Roman Abramovich errusiar enpresaria da Chelsea taldeko jabea, akzioen gehiengoarekin. Enpresari hau Chelsea-ren jabea izateaz gain, beste bi negozio handiren parte da, Evraz eta Norilsk Nickel. Evraz enpresako akziodun nagusi eta jabea da, burdingintza sektoreko bigarren errusiar enpresa handiena izanik. Norilsk Nickel munduko nikel findua ekoizten duen enpresa garrantzitsuen da eta enpresa honetan ere akzioen zati garrantzitsu bat du errusiarrak. (*Bloomberg.com*)

##### *Wolverhampton Wanderers*

Talde honen jabegoa Fosun International enpresa multinazionalak du. 1992. Urtean Txinan sortutako enpresa honen eginkizun nagusia teknologia eta berrikuntzari loturiko inbertsioak eta garapena dira, batez ere osasunaren, teknologiaren eta finantza sektoreetan. (*Fosun.com*)

##### *Leicester City*

Srivaddhanaprabha familia tailandiarra da Leicester City taldeko jabea, Vichai Srivaddhanaprabha familiako aita 2018an hil zenetik. Gizon honek King Power izeneko duty-free motako enpresa sortu zuen, gaur egun bere familiaren esku egonik. Enpresa honek zergarik gabeko (duty-free) denda asko kudeatzen ditu, bere negozioaren bolumena gaur egun oso handia izanik, batez ere Tailandian. (*Davis, 2016*)

##### *Everton*

Evertonen Farhad Moshiri enpresari iraniarra dugu akziodun nagusi, kapital sozialaren %68 inguru bere eskuetan edukita. Enpresari honen negozio nagusia Blue Heaven Holdings Ltd da,

higiezinaren sektorean jarduten duen enpresa bat izanik. Holding motako enpresa honen jarduerak nagusiak higiezinaren erosketak, salmenta, alokairua eta lurraldeen salmenta eta kudeaketarekin lotuta daude. (*Zaubacorp.com*)

#### *West Ham United*

David Sullivan enpresari galestarra da West Ham United taldeko akziodun nagusi kapital sozialaren %51 ingururekin. Enpresari honek gaur egun Conegate Limited izeneko enpresa du negozio nagusitzat West Ham United taldeaz gain, higiezinaren sektorean jarduten duena, hauen salmenta eta erosketak jarduerak nagusi izanik. (*Beta.companieshouse.gov.uk*)

#### *Newcastle United*

Mike Ashley jauna da klub honetako jabea. Klubaz gain bere negozio nagusia Sports Direct izeneko enpresa da, Ingalaterrako kirol arroparen sektoreko enpresa handiena izanik. Munduan zehar 670 denda baino gehiago ditu eta marka askotako produktuak saltzen dituzte, horien artean Nike, Adidas, Asics, Everlast... (*Es.sportsdirect.com*)

#### *Brighton and Hove Albion*

Talde honen jabea Tony Bloom pokerreko jokalaria eta apustugile profesionala da eta bere negozio nagusia Starlizard izeneko kirol apostuen aholkularitza enpresa bat da. Enpresa honetan beraz gain jende askok egiten du lan, beste aholkularitza enpresetan izaten den bezala. Sinpleki azalduta, enpresa honen bidez, estatistikan oinarritutako aholkuak saltzen dizkio jendeari, ustez gainerako apustu aholkuak baino hobeak direnak, eta hemendik lortzen ditu nagusiki diru sarrerak. (*Williams-Grut, 2017*)

#### *Bournemouth*

Bournemouth taldearen jabea Maxim Denim errusiar enpresaria da, bere eskuetan bi enpresa garrantzitsu dituelarik, Wintel Petrochemical Limited eta Wintel Holdings (UK) Limited, biak produktu petrokimikoen sektoreari lotutakoak, salmenta, erosketak eta beste hainbat jarduerak aurrera eramaten dituztelarik. (*Beta.companieshouse.gov.uk*)

#### *Burnley*

Mike Garlick enpresari ingelesa Burnley taldeko akziodun nagusi izateaz gain, Michael Bailey Associates enpresaren jabea ere bada. Enpresa honek hainbat sektoretan jarduten du mundu osoan zehar, adibidez teknologia sektorean, gasaren sektorean, farmazeutika sektorean eta telekomunikazio sektorean. (*Michael Bailey Associates*)

#### *Cardiff City*

Cardiff City talde galestarrean Vincent Tan enpresari malasiarrak du kapital sozialaren gehiengoa, Berjaya Corporation Berhad izeneko konglomeratuaren jabea dena. Konglomeratu



honetan sektore askotako negozio ezberdin asko aurki daitezke, finantza sektorekoak, elikadura sektorekoak, higiezin sektorekoak beste batzuen artean. (Berjaya.com, 2019)

#### *Fulham*


Shahid Khan enpresari pakistandar-estatubatuarra da talde honen jabea, beste bi negozio nagusi ere bereak izanik. Kirolari loturik, NFL estatubatuar futboleko Jacksonville Jaguars taldearen jabea da, nahiz eta bere negozio nagusia Flex-N-Gate izeneko enpresa den. Enpresa honek jarduten duen sektorea autoena da, bere jarduera nagusia autoentzat piezak ekoiztea izanik. (Forbes, 2019)

#### *Huddersfield Town*

Talde honetako akziodun nagusia Dean Hoyle enpresari ingelesa da, Card Factory izeneko enpresaren jabea. Enpresa honen jarduera nagusia opari txartelen, paperen, poltsen eta antzeko artikuluen ekoizpena eta salmenta da. (CardFactory.co.uk, 2019)

Ondorengo grafikoak erakusten du klub guztien akziodun nagusien sektorea ehunekotan:

*Grafikoa 9. Sektore ezberdinetako akziodunen banaketa ehunekotan - Premier League*



(Norberak egina)

## 5. BUNDESLIGA

### 5.1 Historia

Bundesliga izenarekin ezagutzen dugun liga Alemaniako lehen mailako futbol liga da, 18 taldez osatua, aurreko bi ligetan baino kopuru txikiagoa izanik. Bundesligak gaur egun nahiz eta espainiar ligak edo Premierrak duten ikuslegoa ez izan, Europako liga garrantzitsuenetako bat kontsideratzen da, mundu mailako klub indartsuenetako batzuk dituelarik. Liga hau 1962. urteko uztailak 28an sortu zen Dortmund hirian, Futbol Asoziazio Alemanaren (DFB) bilera orokorrean bertako partehartzaileek, eskualde ezberdinetako asoziazioek, liga nazionalaren sorrera adostu zutenean, 103 boto alde eta 26 kontra izanik. Ligaren inaugurazioa hurrengo urtean egingo zen, 1963-64 denboraldian.

Bundesliga sortu aurretik, hainbat saiakera egin ziren futbol alemaniarrari beste itxura bat emateko, esate baterako 1932. urtean "Reichliga" izeneko egitura proposatu zen, non nazio mailako klub onenen artean erabakiko zen txapelduna, baina eskualde ezberdinetako asoziazioek ideia honen kontra egin eta betatu egin zuten. Beranduago, "Oberliga" deituriko egitura bultzatu zuten, honen funtsa eskualde ezberdinetako liga txikiak ezartzea izanik, bakoitzean talde ezberdinek elkarren artean lehiatzen zutelarik, beranduago onenen artean txapelduna erabakitzeko. Egitura honek arrakasta handiagoa izan bazuen ere, bi arazo nagusi ekarri zituen berekin. Lehenik eta behin, eskualde bakoitzean konpetentzia murrizten joan zen, beti talde berdinek irabazten zutelako eta honen ondorioz talde alemaniarren maila asko jaitsi zen gainerako europar ligetako taldeekin konparatuz.

1962. urtean Bundesliga sortzeko erabakia hartu zen eta horretarako eskualde ezberdinetako Oberligetako hautagai batzuk aukeratu ziren, Oberliga South-eko 5 talde, Oberliga West-eko 5, Oberliga North-eko 3, Oberliga Southwest-eko 2 eta Stadtliga Berlineko bat. Erabaki hau hartzeko orduan klubak errendimenduaz gain bakoitzaren egoera ekonomikoa eta azpiegitura ere kontuan hartu ziren.

Liga berriaren sorreratik Alemaniako futbol profesionalaren igoera oso nabarmena izan zen, nahiz eta 1971. urtean oso momentu beltza izan zuen. Urte horretan jakin zen futbol alemaniarra ez zela espero zen bezain garbia, Futbol Asoziazio Alemanak (DFB) denboraldi horretan gutxienez 18 partidu manipulatuak izan zirela erakutsi baitzuen. Honen eraginez, talde ezberdinetako kide eta jokalarik asko zigortuak izan ziren, batzuen kasuan zigor oso gogorrak izan

zirelarik. Une honek futbol alemaniarren historia zikindu bazuen ere, liga berri honen garapena ezeztatzina zen, hurrengo hamarkadan europar txapelketetan talde alemaniarren presentzia oso garrantzitsua izan baitzen, historian lehen aldiz Europako beste klubei aurre eginez. 1980. Hamarkadan klub alemaniarrek lau aldiz iritsi ziren Europako Kopako finalera, gaur egun Txapeldunen Liga bezala ezagutzen dugunera, eta beste lau aldiz UEFA Kopara.

Urte batzuk beranduago, 1991. urtean hain zuzen, Alemania berriz ere batu egin zen, Ekialdeko Alemaniako Futbol Asoziazioaren (DFV) eta DFB-ren fusioa ekarriz. Honen eraginez, Bundesliga 20 talde izatera pasa zen, Hansa Rostock eta Dynamo Dresden taldeak izanik Ekialdeko Alemaniako lehen bi taldeak Bundesligan jokatzeko.

Orduz geroztik liga honen erakargarritasuna ekarri duten faktore asko izan dira, hauek telebistaren eta enpresa handien interesa ekarri dituelarik, Europako gainerako ligei aurre eginez. (*Bundesliga - official website, 2009*)

## 5.2 Arautegia

Bundesligak badu gainerako ligetatik bereizten duen ezaugarri berezi bat, klubetako bazkideak gainerako kanpoko inbertsiogileetatik babesten dituenak. Arau honen izena 50+1 da eta 1998. urtean ezarri zen zaleei abantaila eman eta hauen interesak babesteko. Arau honek talde ezberdinetako bazkide eta zale guztiei ahotza eta botoa ematen die, maite duten klubaren parte izan ahal izateko.

50+1 Araua era informalean erabilitako termino bat da, Alemaniar Futbol Ligako (DFL) arautegiaren zati bati erreferentzia egiten diona. Laburbilduz, arau honek esaten duena da klub batek Bundesligan jokatzeko lizentzia bat nahi badu, klubak berak izan behar duela boto eskubidearen gehiengoa. Beste era batera esanda, botoen %50+1-ak klubaren eta bere bazkideen esku egon behar du. Historikoki bazkideen presentzia horren garrantzitsua izan den liga honetan ezinbestekotzat dute printzipio hau. Hau ikusteko nahikoa da Bayern Munchen, Borussia Dortmund edota Schalke 04 klubek duten bazkide kopurua ikustea, 290.000, 153.787 eta 150.688 hain zuzen. Horrelako ingurune batean, logikoa da arau honen existentzia, klubaren kontrol orokorra bazkideen esku izateko diseinatuta baitago, kanpoko inbertsiogileen eraginez babestuz.

Arau hau sortu aurretik, Alemaniako futbol klubak bazkideen asoziazioen esku zegoen. Honek esan nahi zuena zen klubak irabazi asmorik gabeko erakunde bezala administratzen zirela

eta ondorioz ez zen jabego pribatua inondik onartzen. Honen aldaketa 1998an etorri zen, Alemaniako Futbol Federazioak klubak sozietate anonimo publiko edo pribatu bilakatzeko baimena eman zuenean, finantza aldetik klubentzako onurak ekartzeko. Hala ere, gainerako ligetan ez bezala, arau honek botoen %50+1 klubaren bazkideen eskuetan egotea behartzen du, klubeko kideek botoen gehiengoa izan dezaten.

Araua kasu gehienetan errespetatzen bada ere, badira salbuespen batzuk, baldintza jakin bat bete izanagatik akziodun nagusi izatera pasa direnak, botoen gehiengoa izanik. Baldintza hau honakoa da: Klubaren finantzaketa 20 urte edo gehiagotan nabarmen mantendu duenak klubaren akzioen gehiengoa izateko eskubidea du. Hiru kasu dira Bundesligan, Bayer Leverkusen, Wolfsburgo eta Hoffenheim, non akziodun nagusiak klubari lotuta dauden, Bayer eta Volkswagen enpresak lehen bietan eta Dietmar Hopp enpresaria hirugarrenean.

Nahiz eta arau hau klub guztietarako oinarri bat den, gaur egungo talde batzuetan kasu berezi batzuk aurki daitezke aurrerago ikusiko den bezala, arau hau betetzen badute ere hau era berezi batean antolatuak daudenak. (*bundesliga.com/es - el sitio web oficial de la Bundesliga, 2019*)

### 5.3 Taldeak

Bundesligako taldeak 2018/19 denboraldian, lanean aztergai izango ditugunak, honakoak dira:

Bayern Munich, Borussia Dortmund, RB Leipzig, Eintracht Frankfurt, Monchengladbach, Hoffenheim, Bayer Leverkusen, Werder Bremen, Wolfsburgo, Dusseldorf, Hertha Berlin, Mainz, Friburgo, Augsburg, Schalke 04, Stuttgart, Nuremberg eta Hannover.

Klub hauen artean, bakoitzak bere jabego eta administrazio propioa du, beraien estatutu eta politikak ezarriz.

### 5.4 Akziodun nagusiak

Akziodun nagusiei dagokienez, Bundesligan 50+1 arau baldintza bereziagatik betetzen ez duten hiru klubak kenduta, guztiak kirol sozietate mugatuak dira (*Gesellschaft mit beschränkter Haftung* alemaniarrez). 15 Klub hauek araua betetzera behartuak egonik, akzioen jabetzaren gehiengoa klubeko bazkideen esku dago, akziodun nagusi bilakatzen dituelarik. Klub batetik

bestera bazkideek euren eskuetan duten kapital sozialaren ehunekoa aldatu egiten da, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago delarik, baina beti ere erdia baino gehiago izango da.


Lehenago azaldu den bezala, gainontzeko 3 taldeetan (Bayer Leverkusen, Wolfsburgo eta Hoffenheim) akziodun nagusiak Bayer enpresa farmazeutikoa, Wolkswagen auto enpresa eta Dietmar Hopp enpresari alemaniarra dira.

## 5.5 Taldeen merkatu balioa

Akziodun nagusiak eta hauek duten kapital sozialaren zatia ezagutu ondoren, futbol talde bakoitzaren merkatu balio totalari erreparatuko zaio bakoitzak duen botere ekonomikoa aztertzeko. Talde baten merkatu balio totala taldeak bere eskuetan dituen jokalarien merkatu balioen batura da, ikusiko dugun bezala talde batetik bestera alde handiak aurki daitezkeelarik.

Grafiko honek erakusten du 2018/2019 denboraldian zehar Bundesliga alemaniar ligako talde guztiek duten merkatu balio totala milioi eurotan.

*Grafikoa 10. Merkatu balio totala milioi eurotan - Bundesliga*



*(Norberak egina iturri ezberdinetatik)*

Grafikoak erakusten duen bezala Bayern Munich eta Borussia Dortmund taldeak dira merkatu balio total handiena dutenak Bundesligan, gaur egun bi hauek izanik liga alemaniarreko talde boteretsuenak. Beste bi ligekin konparatuz, Bundesligak talde guztien merkatu balio totalaren

batura nahiko baxua du, **4,54 mila milioi** eurokoa hain zuzen. Hala ere, esan beharra dago liga honetako lehen mailan 18 klubek hartzen dutela parte, beste ligetan baino 2 talde gutxiagok.

## 5.6 Azpimultzoak


Bundesligako klubien jabetza egitura beste bi ligekin alderatuz oso desberdina izanda, aztertuko diren azpimultzoak mugatuagoak izango dira, aurrerago ikusiko dugun bezala.

### 5.6.1 Atzerritarra

Akziodunen nagusien artean atzerritarren presentzia Bundesligan ia nulua dela esan daiteke, 50+1 arauetatik klub ia guztietan jabetza klubaren eta bazkideen esku baitago. Araua betetzen ez duten 3 klubek artean (Bayer Leverkusen, Wolfsburg eta Hoffenheim) akziodun nagusien jatorria alemaniarra da, Bayer enpresa farmazeutikoa eta Volkswagen autoen enpresa alemaniarra izanik, Dietmar Hopp enpresaria bezala. Aurkitu daitezkeen salbuespen bakarra RB Leipzig klubarena da. Aurrerago ikusiko dugun bezala, klub honen sorrera berezia izan zen, 50+1 araua bete ahal izateko trikimailu legalak erabili zituztelako, moralki arau hau urratzen zutenak. Red Bull enpresako jabea austriarra izanik, nahiz eta talde honek 50+1 araua bete, esan daiteke klubaren jabetza berea dela, talde hau izanik Bundesligako jabetza atzerritarra duen bakarra.

Ondorengo grafiko honek erakusten du akziodun nagusien artean zein den bertakoei eta atzerritarrei dagokien ehunekoa.

Grafikoa 11. Akziodun nagusien jatorria ehunekotan - Bundesliga



*(Norberak egina)*


### 5.6.2 Sektoreak

Klubetako akziodun nagusien negozioen sektoreei dagokienez, garbi dago 50+1 araua betetzen duten 15 klubetan sektorea futbolarena dela, klubeko bazkideak baitira kapitalaren zati handiena dutenak. Bayer Leverkusen, Wolfsburgo eta Hoffenheimen kasuan, sektore farmazeutikoa, autoen sektorea eta software sektorea dira bakoitzeko akziodun nagusiaren sektoreak hurrenez hurren.

RB Leipzig klubaren kasuan, nahiz eta honek 50+1 araua bete, esan daiteke bere jabegoa Red Bull enpresaren menpe dagoela, bere sektorea edari energetikoena izanik.

Ondorengo grafikoak erakusten du klub guztien akziodun nagusien sektorea ehunekotan.

Grafikoa 12. Sektore ezberdinetako klub enbanaketa ehunekotan - Bundesliga



(Norberak egina)

### 5.6.3 Klub bereziak

Aurrez aipatu bezala, lehen mailako liga honetako klub gehienetan boto eskubideen gehiengoak kanpoko inbertsiogileen eskuetatik kanpo aurkitzen da, 50+1 arau ezagunagatik, Bayer Leverkusen, Wolfsburgo eta Hoffenheim klubetan izan ezik, aurrerago ikusiko den bezala.

Arau honen eraginez, klub gehienetan boterea dutenak bazkideak direnez, arau honekin bat ez datozen klubak eta kondizio bereziak dituzten beste batzuk aztertuko dira, bakoitzaren xehetasunak erakutsiz eta gainerakoengandik bereizten dituzten faktoreak azaleratuz.

#### *RB Leipzig*

RB Leipzig klubaren sorrera liga alemaniarreko 5. mailako SSV Markrandstad klub baten erosketatik etorri zen, Red Bull enpresaren jabearen eskutik, Dietrich Mateschitz. Enpresari austriarrak liga alemaniarrean klub bat izatearen desioa zuen baina 50+1 arauak kanpo inbertsiogileen sarrera debekatzen zuenez, 2009. urtean klub hau erosi zuen bere dirua inbertituz talde honi izena aldatu eta lehen mailara igotzeko asmoarekin. Erosketa hau legala izan zedin, Sachsen taldearen filiala eta Zentralstadion izeneko estadio bat erosi zituen baldintzak betetzeko. Kulturarik gabeko eta izen komertzialeko klub berri honen sorrerak



afizionatuen gorrotoa ekarri zuen Alemanian, guztiz hausten baitzuen ordura arteko futbolaren filosofia, Bundesliga osoko talderik gorrotatuena izatera iritsi zelarik.

Horrela jaio zen RB Leipzig, talde baten formarekin baina eduki gutxirekin. Lehen urteetan taldearen arrakastarako bidea bilatzea ez zen oso erraza izan, Ralf Ragnick izeneko kirol zuzendaria ekarri zuten arte. Honen eskuetan, klubak jokalaria gazteen bilaketa eta formazioan diru asko inbertitu zuen, gaur egun hala jarraitzen duelarik. Urte batzuk pasa ostean, Bundesligako lehen mailara igotzea lortu zuen, gainerako klub handiei gaur egun aurre eginez.

Talde honek Bundesligako 50+1 araua legalki errespetatzen badu ere, futbol alemaniarrek duen filosofia ez du partekatzen eta horrek liga honek duen berezitasuna alde batetik hautsi egiten du. Klub honetan akzioen %99a Red Bull enpresak eta %1a bazkideek dituzte, baina bazkideek dute %50+1 botoen eskubidea. Honen adibide garbia da Bayern Munich klubean bere presidentea hautatzeko botoa 290.000 bazkideen artean banatua dagoen bitartean RB Leipzig taldean boto eskubide hau soilik Red Bull enpresako taldean lan egiten duten pertsona gutxi batzuen artean egotea, hauek izanik taldeko bazkideak. *(Dotras, 2016)*

### *Bayer Leverkusen*

Bayer Leverkusen kluba dugu 50+1 araua betetzetik libratzen den klubetako bat, bere inbertsiogile nagusiaren antzinatasunagatik. 1903. urtean sortu zuten Bayer enpresa farmazeutikoko langile talde batek eta gaur egun arte enpresa honek klubarekin izan duen lotura estuagatik botoen eskubidearen gehiengoa du, gainerako klubetan ez bezala. Bayer enpresak urte hauek guztietan zehar klubaren babesle ofizial bezala jardun du, klubari finantzazio iturri konstante bat eskainiz eta hau dela eta du gainerako inbertsiogile handiek ez duten abantaila hau. *(Bayer 04 Leverkusen, 2019)*

### *Wolfsburgo*

Bayer Leverkusen taldean gertatzen den antzera, Wolfsburgo taldean ere botoen gehiengoa Volkswagen enpresak du. Talde hau 1945. urtean sortu zen Wolfsburgo hirian, hiriaren sorrera baino 7 urte beranduago. Hiri hau Volkswagen enpresako plantan lan egiten zuten pertsonentzat aterpe bezala sortu zen eta handik 7 urtera hiriko futbol taldea sortzea erabaki zuten. Gaur egun arte enpresa hau talde honen babesle nagusia izan denez, klubaren boto eskubidearen gehiengoak ere bere eskuetan jarraitzen du. *(Ecured.cu, 2019)*

### *Hoffenheim*

Klub honetan Dietmar Hopp enpresari alemaniarra da klubaren akziodun nagusi eta baita boto eskubideen gehiengoa duena ere, bere eskuetan SAP enpresa edukita. 2015. Urtera arte, Hopp klubeko akziodun nagusia soilik zen, %50+1 legeak ez ziolako botoen gehiengoa izatea baimentzen eta %49a soilik zuen.


Urte hau iristean, botazio bat egin zen klubeko bazkideen artean Hopp-i botoen gehiengoa eman eta %50+1 araua alde batera uzteko. Enpresari hau klubeko pertsonaia mitiko bat zen, 20 urte baino gehiago zeramatzan kluba ekonomikoki laguntzen eta hau dela eta botazioan baiezkoa irten zen, Hoffenheim Bundesligako %50+1 araua betetzen ez zuen 3. kluba bilakatuz. (DW.COM, 2015)

### *Borussia Dortmund*

Borussia Dortmund talde ospetsuaren kondizioa gainerako klub alemaniarrekin konparatuz berezia da. Nahiz eta klub honek 50+1 araua bete, beste klub gehienetan kapital sozialaren gehiengoa klubeko bazkideek duten bitartean, Borussia Dortmund soilik kapital sozialaren %5,5aren jabe da, akzioen gehiengoa publikoaren eskuetan dagoelarik, %60 inguruk burtsan kotizatuz, honek klubaren jabetza ia osotasunean publikoa eginik.

Gaur egun 50+1 araua betetzen duten klubuen ehunekoa honako grafiko honek erakusten du, aztertu berri ditugun kasu bereziak alde batera utziz:

*Grafikoa 13. 50+1 Araua betetzen duten klubuen ehunekoa - Bundesliga*



*(Norberak egina)*

## 6. KONPARAKETA

Europako hiru ligen azterketa egin ostean, zenbait punturi jarraituz konparaketari ekingo zaio elkarren artean dituzten antzekotasunak eta ezberdintasunak azpimarratzeko, beranduago konparaketa honetaz baliatuz ondorio batzuk atera ahal izateko.

### 6.1 Arautegia

Arautegi aldetik hiru ligak konparatuz desberdintasun nabarmenak ikus daitezke, batez ere lehen bi ligan dituztenak Bundesliga alemaniarrekin alderatuz. LaLiga eta Premier League-n klubaren erosketa mugatzen duen arau zehatzik ez dagoenez, akziotan banatzen den kapital sozial bat duen klub oro eros dezake inbertsiogile handi batek, honek klubaren kontrola hartuz eta bere etorkizunerako hartu beharreko erabakien kargu eginez.

Espaniar ligan, adibidez, akziodun handien sarrera apur bat mugatzen duten arau jakin batzuk dauden arren, zaleak babesten dituen arau garrantzitsurik ez dago inbertsiogile handien aurrean. Salbuespen moduan badira pare bat talde beraien barne politikan arau berezi batzuk dituztenak inbertsiogile handietatik babesteko, aurrez aipaturiko Eibar eta Real Sociedad taldeak hain zuzen. Nahiz eta gaur egun atzerritar inbertsiogile handien presentzia nazio mailakoena baina txikiagoa den, etorkizunera begira babes gutxi ematen zaio bertako inbertsiogileei eta zer esanik ez zale eta bazkideei.

Premierrari begira, liga honetan nazio mailako inbertsiogile txikiei edota zale edo bazkideei emandako babes oraindik eta txikiagoa da Espainiar ligarekin konparatuz. Erregulazio falta honek kanpotar inbertsiogile handien interesa piztu zuen, ia klub handi guztien jabetza gaur egun beraien eskuetan gelditu delarik. Hori ikusteko nahikoa da Liverpool, Manchester United, Manchester City, Chelsea eta beste hainbat klubetan zeinek agintzen duen begiratzea.

Bundesligan aldiz, %50+1 araua dela eta, klubaren erosketa inbertsiogile handien eskutik gertaezina da, bazkideei gainerako ligetan ez duten erabakitzeko boterea emanaz. Arau hau betidanik izan da Bundesliga gainerako europar ligetatik bereizi duen ezaugarri nagusia, futbola negozio huts bezala ikusi beharrean zaletasuna eta afizioa aurretik jarri izan dutelako. Salbuespenak badaude ere, hauen existentzia justifikatua eta onartua dago afizionatu alemaniarren artean, arautegia errespetatzen baitute.


## 6.2 Atzerritarak

Klubetako akziodun nagusien jatorria aztertzerako orduan, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke hiru ligetan, honetan eragiten duten faktore nagusiak liga bakoitzak duen erakargarritasun maila eta arautegia izanik.

Esate baterako, Espainiar ligan atzerritarren presentzia nabarmena da, urte gutxitan %30 izatera iritsi direlarik, nahiz eta oraindik ere nazio mailako akziodunak gehiago diren. Premierrean aldiz, atzerritar enpresa eta gizabanakoak dira klub gehienetako jabeak, nazio mailako akziodunak gaur egun oso gutxi direlarik, atzerritarrek duten zatia gutxi gora behera %70 izanda. Aipagarria da atzerritarrek gaur egun Premierreko klub handienetan boterea dutela, ez klub txikietan soilik. Hala ere, hiru liga hauetatik desberdinena Bundesliga da lehenago askotan aipaturiko arauak kanpotar inbertsiogileen presentzia zailtzen duelako. Liga honetako klub guztietan akziodun nagusiek (gehienetan kluba bera) alemaniar jatorria dute, RB Leipzig-en izan ezik, Red Bull enpresako nagusia austriarra delarik.

Honako grafiko honetan erakusten da hiru ligetako akziodun nagusien gutxi gorabeherako banaketa jatorriaren arabera:

Grafikoa 14. Hiru ligetako akziodun nagusien jatorria ehunekotan



(Norberak egina)

### 6.3 Akzio banaketa

Hiru ligetako klubetako kapital soziala nola banatzen den begiratzuz gero, liga batetik bestera aldaketa batzuk daudela ikus daiteke.


Espaniar liga hartuta, garbi dago klub gehienetan akziodun nagusiak kapital sozialaren %50 baino gehiago duela, kasu askotan zifra hori %90 edo gehiago izatera iristen delarik. Hala ere, badira klub batzuk non kapital soziala banatuagoa dagoen eta batez ere Eibar eta Errealaren kasuan, euren barne politikek akziodun handiak izatea saihesten dutelako.

Premierrean aldiz, akzioen banaketa oso urria da, ia klub guztietan kapital sozialaren zati handiena pertsona edo enpresa batek bere eskuetan baitu. Harrigarria badirudi ere, lehen mailako 20 klubetatik batean bakarrik aurki dezakegu kapital sozialaren %50a izatera iristen ez den akziodun nagusia.

Bundesligaren kasua bestelakoa da. Liga honetako 17 klubetatik 14tan bazkideak dira kapital sozialaren gehiengoaren dutenak, %50 edo gehiago, beraz gainerako ligekin aspektu honetan konparatzeak ez du logika handirik. Gainera, 50+1 legea betetzen ez duten 3 taldeetan hiru akziodun nagusiek kapital sozialaren %50a baino gehiago dute, honek banaketa murrizten duelarik.

Honako grafiko honek erakusten du, Bundesliga alde batera utzita, beste bi ligetako klubean akzioen banaketa:

Grafikoa 15. Bi ligetako tamaina ezberdineko akziodunen banaketa ehunekotan




(Norberak egina)

## 6.4 Merkatu balioa

Hiru ligetako taldeen merkatu balio total guztiak ikusi ostean, garbi dago liga bakoitzean badirela gainerakoengandik desberdintzen diren klub batzuk, beraien eskuetan futbol jokalarri baloratuena dituztenak. Normalean, klub hauek ekonomikoki boteretsuenak izan ohi dira eta futbol maila altuena dutenak. Hala ere, konparatzeko datu garrantzitsuena liga bakoitzeko talde guztien merkatu balioaren batura da, datu honek liga bakoitzean dagoen botere ekonomikoa islatzen baitu.

Ondorengo grafiko honek erakusten du liga bakoitzeko talde guztien merkatu balioaren batura bilioietan.

Grafikoa 16. Liga bakoitzeko talde guztien merkatu balioaren batura mila milioi eurotan



(Norberak egina)


Argi ikusten da Premier League-a dela hiru liga hauen artean ekonomikoki boteretsuena den liga, bertako klubek dituztelako futbol jokalarri baloratuena gaur egun. Espainiar ligaren eta Bundesligaren zifra nabarmen baxuagoak dira, azken honena baxuena izanik.

## 6.5 Sektorea

Kluben jabegoa duten akziodun nagusien enpresak aztertzerako orduan, sektore ezberdinetara zuzendutako negozio ugari dituztela argi dago, horien artean higiezin sektorekoak, petrolio sektorekoak, autoen sektorekoak eta beste hainbeste, kasu askotan enpresa askoren konglomeratuak aurkitzen ditugularik, sektore askotara bideratuta daudenak. Hau dela eta, futbolaren eta beste kirolen sektorea soilik berezituko da gainerakoetatik, konparaketa sinpleagoa eta argiagoa izan dadin.

Honako grafiko honek erakusten du, liga bakoitzeko akziodun nagusien negozioak hartuta, zein den futbola eta kirolari loturiko sektoreari dagokion ehunekoa eta zein gainerako sektoreei dagokiena.

*Grafikoa 17. Hiru ligetako sektore ezberdinetako akziodunen ehunekoa*



*(Norberak egina)*

Grafikoari dagokionez, argi ikus daiteke LaLigako eta Premierreko klubetako akziodun nagusien artean gehiagok dituztela beste sektoreetako enpresak futbolari edo beste kirolei loturiko enpresak baino. Negozio hauen artean sektore askotakoak aurki daitezke, barietatea oso handia baita, kasu askotan aurrez aipatu bezala negozio nagusia enpresen konglomeratu bat izanda. Bundesliga da, beste behin, beste bietatik desberdina, 50+1 araua eragile izanik berriz ere. Liga alemaniarrean klubak jabetza bazkideen esku egonik, 4 klubetan soilik aurki daitezke beste

sektoreetan jarduten duten akziodun nagusiak, aurrez aipaturiko hiru klub berezietan eta RB Leipzig klubean.

## 7. KONKLUSIOAK

Hiru ligen eta bertako klubetan banakako azterketa eta konparazioak egin ondoren, gai honen inguruko konklusio batzuk emango ditut nire iritziz hiru europar liga hauek dituzten alde on eta txarrak azpimarratuz, orain arte ikusitako puntuak jarraituz.

Lehenik eta behin, arautegi aldetik begiratuta Bundesliga dugu liga bereziena 50+1 arauetatik. Arau honekin, aurrez behin baino gehiagotan aipatu bezala, Alemaniako futbol zaleei babes ematen zaie, klubetan erabakitzeko boterea hauei emanez, honek futbolarekiko sentimenduak negozioaren gaintik jartzen dituelarik. Espainiar ligan, erregulazio minimo bat badago ere, oraindik ere garrantzi handiagoa ematen zaio taldeen etekin ekonomikoari, inbertsiogile handien kapital erosketak hau ekartzen baitu. Hala ere, esan beharra dago zaleekiko hurbiltasun hori mantentzen duten hiru kirol klubak aspektu horretan asko desberdintzen direla gainerakoengandik, hauetan inbertsiogile handien presentzia ezinezkoa baita.

Premier League-a da, nire ustez, zaleen babesari begira hiru ligenetik pobreena, Europako irabazi asmo gehiena duen liga izanda. Ikusmin handiena sortzen duen liga izateagatik kanpo inbertsiogile handien interesa handitzen joan da urteak pasa ahala eta hauen etengabeko klubetan erosketak erregulatzeko ez da ezer egin. Aurrez ikusi bezala, liga hau da diru gehien balio duten jokalariek dituen, gainerako bi ligen alde handia ateratzen dielarik. Hau horrela izanda, nahiz eta honek klubetan ongizate ekonomikoa ziurtatzen duen, nire ustez futbolariek garai batean zuen esentzia galtzera eraman du, boterea diru gehiena duenari ematen baitzaio koloreak benetan sentitzen dituenari eman beharrean.

Atzerritarren presentziak klubetan jabegoan ekonomikoki onurak ekar badituzke ere, hauen bertakotasuna galtzera eramaten du. Zoritxarrez, espainiar ligan eta Ingalaterran egoera hau normalizatu egin da eta futbol alemaniarra da bere filosofia berezia mantentzen duen bakarra, kanpotar aberatsei atea itxiz, futbola bertakoena eginez.

Liga hauek negozio mailan duten erakargarritasunak bultzatuta, geroz eta gehiago dira beste sektoreetako enpresak dituzten klubetan jabeak, hauetatik diru etekina ateratzeko asmoarekin etorriak. Hauek, mundu mailako enpresari handiak izanda, futbola negozio huts bezala ikustera



pasa dira, kapital sozialaren zati handiena erostea lehen inbertsio bezala ikusten dutelarik. Beste behin, negozio hutsaren ikuspegi hau izatea baztertzeko duen liga bakarra hiru hauek Bundesliga da.

Azken finean, klubaren jabearen mugak jartzen dituen arautegi batek hauen egoera ekonomikoa beste ligetakoena baino mugatuagoa egiten badu ere, Bundesligako taldeen merkatu balio totalak islatzen duen bezala, futbolarekiko ikuspegia guztiz aldatzen du. Erabateko negozio pentsaera bat izatek sentimendu bat izatera pasatzen da, hau izanik nire ustez, Bundesliga eredu gisa beste bi ligen gainetik hautatzeko arrazoi nagusia.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- Álvarez, D. (2018). *Ronaldo, en un avispero en Valladolid*. EL PAÍS. [https://elpais.com/deportes/2018/10/09/actualidad/1539106339\\_786884.html](https://elpais.com/deportes/2018/10/09/actualidad/1539106339_786884.html)
- Bayer 04 Leverkusen. (2019). *Los primeros años*. <https://www.bayer04.de/es-es/page/historia/de-los-primeros-anos-a-2000/primeros-anos>
- Berjaya.com. (2019). *Berjaya Corporation Berhad*. <https://www.berjaya.com/index.php>
- Beta.companieshouse.gov.uk. *CONEGATE LIMITED - Overview*. <https://beta.companieshouse.gov.uk/company/11043212>
- Beta.companieshouse.gov.uk. *Maxim Victorovich DEMIN - Personal Appointments*. [https://beta.companieshouse.gov.uk/officers/\\_IDnmjx1IOPQ1XPG-REbzPvCpNA/appointments](https://beta.companieshouse.gov.uk/officers/_IDnmjx1IOPQ1XPG-REbzPvCpNA/appointments)
- Bloomberg.com. *Company Overview of Kroenke Sports & Entertainment, LLC*. <https://www.bloomberg.com/research/stocks/private/snapshot.asp?privcapId=6499912>
- Bloomberg.com. *Roman Abramovich*. <https://www.bloomberg.com/billionaires/profiles/roman-abramovich/>
- Boe.es. (1999). *Real Decreto 1251/1999, de 16 de julio, sobre sociedades anónimas deportivas*. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1999-15686>
- Bravo, J. (2018). *Carlos Mouriño adquiere una bodega y acumula 20 inversiones en Galicia*. Atlántico. <http://www.atlantico.net/articulo/economia/carlos-mourino-adquiere-bodega-acumula-20-inversiones-galicia/20180915230456668613.html>
- Bundesliga - official website. (2009). *The Bundesliga: a true success story*. <https://web.archive.org/web/20110423074449/http://www.bundesliga.com/en/liga/news/2008/index.php?f=127776.php>
- bundesliga.com/es - el sitio web oficial de la Bundesliga. (2019). *Le explicamos el 50+1, la regla que hace única a la Bundesliga y busca beneficiar a los aficionados*. <https://www.bundesliga.com/es/noticias/que-es-regla-50-1-aficionados-socios-clubes-alemanes-472407.jsp>
- CardFactory.co.uk. (2019). *Find Out Who We Are & What We Do! | Card Factory*. <https://www.cardfactory.co.uk/aboutus.htm>
- Cityfootballgroup.com. *Our Story*. <https://www.cityfootballgroup.com/our-story/>
- Cityfootballgroup.com. *City Football Group | Our Story*. <https://www.cityfootballgroup.com/Our-Story>
- Corpas, A. (2016). *Así es Chen Yansheng, el multimillonario nuevo dueño del Espanyol*. ELMUNDO. <https://www.elmundo.es/deportes/2016/01/31/56ad187a268e3e157c8b464e.html>
- Davis, O. (2016). *What Is King Power? Leicester City FC's Fairy-Tale Soccer Victory Driven By Thai Duty-Free Retail Chain*. International Business Times <https://www.ibtimes.com/what-king-power-leicester-city-fcs-fairy-tale-soccer-victory-driven-thai-duty-free-2363332>

- Diaz, F. (2018). *¿Quién es Idan Ofer, el hombre que ya controla el 32% del Atleti?*. AS.com. [https://as.com/futbol/2018/02/14/primera/1518602509\\_926646.html](https://as.com/futbol/2018/02/14/primera/1518602509_926646.html)
- Domaica, J. (2018). *Josean Querejeta, tres décadas de éxitos*. Mundo Deportivo <https://www.mundodeportivo.com/bizkaia/20181026/452558826333/baskonia-acb-liga-endesa-baloncesto-querejeta-alaves.html>
- Dotras, O. (2016). *Red Bull Leipzig: El equipo más odiado de Alemania tutea al Bayern*. La Vanguardia. <https://www.lavanguardia.com/deportes/futbol/20161117/411918007547/red-bull-leipzig-odiado-bundesliga.html>
- DW.COM. (2015). *SAP mogul Hopp taking majority voting share in Hoffenheim | DW | 10.02.2015*. <https://www.dw.com/en/sap-mogul-hopp-taking-majority-voting-share-in-hoffenheim/a-18246873>
- Ecured.cu. (2019). *VfL Wolfsburg - EcuRed*. [https://www.ecured.cu/VfL\\_Wolfsburgo](https://www.ecured.cu/VfL_Wolfsburgo)
- Es.sportsdirect.com. *SportsDirect.com - The UK's No 1 Deportes Retailer*. <https://es.sportsdirect.com/>
- ExtraConfidencial. (2015). *El presidente del Rayo Vallecano, Raúl Martín Presa, no paga a los trabajadores de sus empresas » ExtraConfidencial*. <https://extraconfidencial.com/noticias/el-presidente-del-rayo-vallecano-raul-martin-presa-no-paga-a-los-trabajadores-de-sus-empresas/>
- Fenway Sports Group. *About Fenway Sports Group*. <https://fenwaysportsgroup.com/about-fenway-sports-group/>
- Fieiras, C. (2018). *Todo era más sencillo al amparo de Giampaolo Pozzo*. VAVEL. <https://www.vavel.com/es/futbol/2018/02/28/cd-lugo/885603-todo-era-mas-sencillo-al-amparo-de-giampaolo-pozzo.html>
- Forbes. (2019). *Shahid Khan*. <https://www.forbes.com/profile/shahid-khan/#1d2cb8cf159b>
- Fosun.com. *About Fosun*. <https://www.fosun.com/language/en/aboutus/1.html>
- FUNDACIÓN ALCORAZ | Web Oficial. *FUNDACIÓN ALCORAZ | Web Oficial*. <https://www.sdhuesca.es/fundacion-alcoraz>
- Galiacho, J. (2014). *El emporio empresarial de José María del Nido, ex presidente del Sevilla, suma 25 millones de euros y tan sólo ha pagado 350.000 euros a la Justicia » ExtraConfidencial*. ExtraConfidencial. <https://extraconfidencial.com/noticias/el-emporio-empresarial-de-jose-maria-del-nido-ex-presidente-del-sevilla-suma-25-millones-de-euros-y-tan-solo-ha-pagado-350-000-euros-a-la-justicia/>
- Gualterio, S. (2016). *Who is the man behind £200m Saints takeover bid?*. Daily Echo. <https://www.dailyecho.co.uk/news/14839465.meet-gao-jisheng-the-multi-million-pound-businessman-in-the-market-for-southampton-fc/>
- Guillén, C. (2017). *Qué diferencias hay entre un club deportivo y una sociedad anónima deportiva*. Ceac. <https://www.ceac.es/blog/que-diferencias-hay-entre-un-club-deportivo-y-una-sociedad-anonima-deportiva>
- Harris Blitzer Sports & Entertainment. *Harris Blitzer Sports & Entertainment*. <https://harrisblitzer.com/home>
- InBrief.co.uk. (2019). *Takeovers of English football clubs by the fans of the club - InBrief.co.uk*. <https://www.inbrief.co.uk/football-law/fans-running-football-clubs/>

- Infodeportes.com. *Barclays Premier League - Historia*. <http://www.infodeportes.com/futbol/liga/premierleague/historia>
- LevanteUD. *La Fundación*. <http://www.fundacionlevantead.org/es/info/la-fundacion>
- *Liga de Fútbol Profesional | rfef.es*. (2018). <http://www.rfef.es/federacion/ligas-comisiones/liga-futbol-profesional>
- Masiá, V. (2011). *Sociedades Anónimas Deportivas: Luces y sombras*. *La Futbolteca. Enciclopedia del Fútbol Español*. Lafutbolteca.com. <http://lafutbolteca.com/sociedades-anonimas-deportivas-luces-y-sombras/>
- Matamoros, S. (2018). *¿Un modelo de inversión a la alemana para el fútbol?*. Expansión.com. <http://www.expansion.com/directivos/deporte-negocio/2018/02/25/5a9077e7e2704e636d8b4581.html>
- Michael Bailey Associates. *Customer focus | Trustworthiness | Team support | Michael Bailey Associates*. <https://www.michaelbaileyassociates.com/our-values.cms.asp>
- Palco23.com. *Ángel Haro | Palco23*. <https://www.palco23.com/directorios/perfiles/ngel-haro.html>
- Palmisciano, A. (2017). *Los dueños: Familia Glazer*. Globalonnet. <https://globalonnet.com/2017/11/20/los-duenos-familia-glazer/>
- Realbetisbalompie.es. *consejo de administración - José Miguel López Catalán - Real Betis Balompie*. <https://www.realbetisbalompie.es/club/consejo-de-administracion/jose-miguel-lopez-catalan>
- Revolvly.com. *ENIC Group*. <https://www.revolvly.com/page/ENIC-Group>
- Ribés, B. (2016). *Los hermanos Roig generan en la provincia más de 3.000 empleos*. ELMUNDO. <https://www.elmundo.es/comunidad-valenciana/2016/05/22/5741d68822601d0b158b461d.html>
- Rosell, C. (2017). *Pere Guardiola y el City, los nuevos propietarios del Girona*. sport. <https://www.sport.es/es/noticias/girona/pere-guardiola-city-los-nuevos-propietarios-del-girona-6239018>
- Royalemiratesgroup.com. *Royal Emirates Group*. <http://royalemiratesgroup.com/>
- Taulés, S. (2015). *Peter Lim, así es el millonario 'dueño' de Cristiano Ronaldo*. ELMUNDO. <https://www.elmundo.es/loc/2015/06/30/559173f546163f6d5c8b45a5.html>
- Williams-Grut, O. (2017). *The story of Brighton & Hove Albion FC owner Tony Bloom, Britain's most successful gambler - and the secretive company that helps him win*. Business Insider. <https://www.businessinsider.com/tony-bloom-biography-2017-4?IR=T>
- Zaubacorp.com. *BLUE HEAVEN HOLDINGS PRIVATE LIMITED - Company, directors and contact details | Zaubacorp*. <https://www.zaubacorp.com/company/BLUE-HEAVEN-HOLDINGS-PRIVATE-LIMITED/U70101MH1995PTC085784>